

euskara ikasten ari garenon aldizkaria

## JOKIN MITXELENA

"Ilustrazio batek ez du  
zertan erabat ulergarria  
eta koherentea izan"



Gaurero:

Euskaraz aritzeko,  
Baztango  
landa-etxeak

Gaurero:

Harrera-familia:  
Adingabeentzako babesa  
eta egonkortasuna

Ele eta ale:

Ele-alea  
irratsaioko tarte  
didaktikoa

Bizilege

apartak:

Mixel  
Labeguerie



## GIPUZKOA

### ANDOAIN

ERNAITZA LIBURUDENDA  
Zumea, 2  
20140 ANDOAIN

### BERGARA

ELKAR MEGADENDA BERGARA  
Ibargarai, 12  
20570 BERGARA  
bergara@elkar.com

### DONOSTIA

HONTZA LIBURUDENDA  
Okendo, 4  
20004 DONOSTIA

### ELKAR MEGADENDA DONOSTIA

Fermin Calbeton, 21-30  
20003 DONOSTIA  
fcalbeton@elkar.com

### ELKAR MEGADENDA

Bergara, 6  
20005 DONOSTIA  
bergarakalea@elkar.com

### IRUN

ELKAR MEGADENDA IRUN  
Colon pasealekua, 8  
20300 IRUN  
irun@elkar.com

### OSKARBI LIBURUDENDA

Colon pasealekua, 11  
20302 IRUN

### TOLOSA

ELKAR MEGADENDA TOLOSA  
Aroztegieta, z/g.  
20400 TOLOSA  
tolosa@elkar.com

### OÑATI

IBARRONDO LIBURUDENDA  
Plaza. Fueros, 10  
20560 OÑATI

### ZARAUTZ

GAROA LIBURUDENDA  
Trinidad, 7  
20800 ZARAUTZ

## BIZKAIA

### BARAKALDO

MILOS PALENZUELA  
LIBURUDENDA  
Uribe Merindadea, 14  
48901 BARAKALDO

### BASAURI

BIOK LIBURUDENDA  
Dr. Garay, 11  
48970 BASAURI

### BILBO

CASA DEL LIBRO-URQUIJO  
Alda. Urquijo, 94  
48009 BILBO

### CASA DEL LIBRO,

LA LIBRERÍA  
Colon de Larreategi, 41  
48009 BILBO

### MACEDA LIBURUDENDA

Santa Clara, 16  
48006 BILBO

### HERRIAK LIBURUDENDA

Licenciado Poza, 11  
48008 BILBO

### VERDES LIBURUDENDA

Correo, 7a  
48005 BILBO

### ELKAR MEGADENDA BILBO

Iparragirre, 26  
48011 BILBO  
iparragirre@elkar.com

### LIZARDI LIBURUDENDA

Heliodoro de la Torre, 9  
48014 BILBO

### CAMARA LIBURUDENDA

Euskalduna, 6  
48008 BILBO

### BINARIO LIBURUDENDA

Iparragirre, 9 bis  
48009 BILBO

### KUKUMA LIBURUDENDA

Colon de Larreategi, 21  
48001 BILBO

### KIRIKIÑO LIBURUDENDA

Colon de Larreategi, 11  
48001 BILBO

### LAUAXETA LIBURUDENDA

Rodriguez Arias, 45  
48011 BILBO

### DURANGO

HITZ LIBURUDENDA  
Artekalea, 14  
48200 DURANGO

### LEIOA

ARTAZA LIBURUDENDA  
E.H.U. Leioako Kanpusa  
Posta kutxa 56  
48940 LEIOA

### SANTURTZI

TEMAS LIBURUDENDA  
Pagazaurtundua, 3  
48980 SANTURTZI

## ARABA

### GASTEIZ

ELKAR MEGADENDA GASTEIZ  
San Prudencio, 7  
01005 GASTEIZ  
sanprudencio@elkar.com

### CASA DEL LIBRO-AXULAR LIBURUDENDA

Arka, 11  
01005 GASTEIZ

### STUDY LIBRERÍA

Fueros, 12  
01004 GASTEIZ

### AYALA LIBURUDENDA

### ELKAR MEGADENDA GASTEIZ

Apraiztarrak, 1-Campus  
01006 Araba  
campus@elkar.com

## NAFARROA

### ARBIZU

BERIAIN LIBURUDENDA

### ETXARRI

KAXETA LIBURUDENDA

### IRUÑEA

AUZOLAN LIBURUDENDA  
San Gregorio, 3  
31001 IRUÑEA

### AUZOLAN LIBURUDENDA

(Berria)  
Tutera, 16  
31003 IRUÑEA

### ELKAR MEGADENDA IRUÑEA

A.M. Larraona, z/g.  
Golem Eraikina  
31008 IRUÑEA  
amlarraona@elkar.com

### LIBRERÍA EL PARNASILLO

Castillo de Maya, 45  
31004 IRUÑEA

## IPARRALDEA

### BAIONA

ELKAR MEGADENDA BAIONA  
Arsenal Plaza  
64100 BAIONA  
baiona@elkar.com

06



## 06 GAURGERO

- Gurebook.com, euskal liburu elektronikoen denda
- Harrera-familia: Adingabeentzako babesa eta egonkortasuna
- Euskaraz aritzeko, Baztango *Kastonea* eta *Ballenea* landa-etxeak

12



## 12 ELE ETA ALE

Ele-alea irratsaioko tarte didaktikoa

23



## 23 HAMAIKA TRIKIMAILU

Jon Barrocal

## 24 ELKARRIZKETA

Jokin Mitxelena: "Ilustrazio batek ez du zertan erabat ulergarria eta koherentea izan"

27



## 27 BIZILEGE APARTAK

Mixel Labeguerie kantaria, euskaltzale polifazetikoa

32



## 32 KOMIKIA

Etxahun, kartografoa (3. atala)

36



## 36 KULTURONTZIA

• Bilboko Arte Eder Museoan: Georges Rouault



Ikasbil atarian ikusgai

# 417

Testuen/ariketen maila: **A1** **A2** **B1** **B2** **C1** **C2**

### ERREDAKZIOA:

Eskarne Lopetegi  
Esther Isasa  
M<sup>o</sup> Ixabel Valcarlos  
Ion Imanol Iturriotz  
Jose Frantzisko Zinkunegi  
Iñaki Aranberri



Azaleko ilustrazioa:  
Jokin Mitxelena

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:  
Zirrimarra/Truke  
(Andoain-Beasain)

INPRIMATEGIA:  
GERTU  
Oñati, Gipuzkoa

LEGEZKO GORDAILUA  
BI- 2251/81  
ISSN: 0212-6788

Euskal Autonomia Erkidegoko  
Administrazio Orokorra  
HABE  
www.habe.euskadi.net  
Tel. 943 02 26 00  
Faxa: 943 02 26 01  
e-mail: argitalpenak@habe.org  
Harpidetzak: harpidetzak@habe.org



**Ikasbil atarian ([www.ikasbil.net](http://www.ikasbil.net)) eta HADE aldizkariaren erredakzioan jasotako galdera batzuk jaso ditugu, beti bezala, txoko honetan zuei erakusteko. Hona hemen hil honetakoak:**



Ikasbil atariko arduradunei:

Gure ikasleek esan izan digute BOGA programa aurreneko aldiz zabaltzen dutenean, beti gaztelaniaz agertzen zaiela dena; hau da, menua erabat gaztelaniaz dagoela. Zergatik gertatzen da hori?

Mila esker zuen arretagatik.

*Nabigatzaile guztien ezarpenetan, hizkuntza zerrenda bat jartzeko aukera dago. Zerrenda horretan erabiltzaile bezala nahi ditugun hizkuntzen lehentasun bat adierazten da. Gure zerbitzariak erabiltzailearen nabigatzailearen ezarpenetan adierazitako lehentasun horien arabera jokatzaren dute, hau da, hizkuntzaren aukera, erabiltzaileen (ikasleen) nabigatzailean dauden ezarpenen esku geratzen da. Hori horrela, zuen ikasleek aldatu behar dute beren ezarpenetan aukeratutako hizkuntzen ordena eta euskara lehen hizkuntza bezala aukeratu. Ikusten denez, gaztelania baita zerrendaren lehen postuan aukeratuta daukaten hizkuntza.*



Kaixo, HADE aldizkariko lagunak:

Astero saiatzen naiz Euskadi Irratian *Ele-alea* irratsaioa entzuten, baina ordu horretan ez da erraza izaten ni etxean egotea. Ba al dago beste modurik irratsaioak entzuteko?

Mila esker zuen laguntzagatik.

**Mirentxu**, Donostia

*Arazorik ez duzu Ele-alea irratsaioak nahi duzunean entzuteko. Izan ere, Ele-alea irratsaio guzti-guztiak aurkituko baitituzu [www.ikasbil.net](http://www.ikasbil.net) atarian, eskuineko aldean ageri den atalean. Bertan duzu, gainera, aurreko irratsaioetarako jotzeko aukera, dataren arabera antolatuta.*



Kaixo, lagunak:

Joan den abenduan Durangoko Azokan jarri zenuten standa bisitatu nuen eta bideo bat grabatu nuen. Ez dut gogoratzen non ikus dezakedan. Agendan apuntatu nuen baina galdu egin zait. Esango al didazue non dauden bideo horiek?

Mila esker

**Mila**, Durango

*Aipatzen dituzun bideo-grabaketak Etxepare Euskal Institutuaren Euskara Mundiala izeneko kanpainaren barruan kokatzen dira eta orain arte grabatu diren bideoak ikusteko, [www.euskaramundiala.net](http://www.euskaramundiala.net) helbidera jo behar duzu, bertan pilatzen ari baitira grabazio guztiak.*

Komiki hau ikus eta entzuteko, jo helbide honetara: [www.ikasbil.net](http://www.ikasbil.net)

## Komikia



Txo!

Zure txokoa da hau, idatziguzu!

## HABEREN MATERIAL DIDAKTIKO SORTAREN IRABAZLEA, ZUBEROA ANDRES ANDREA

**A2** Gogoan izango duzuenez, 2010eko Durangoko Euskal Disko eta Liburuen Azokan HABEek jarritako standera jende ugari hurbildu zen 2011ko agenda eskuratzeko asmoz. Agenda jaso ahal izateko, ordea, HABE erakundeari eta Ikasbil atariari buruzko galdetegi bati erantzun behar zitzaion, paperean nahiz on-line.

Seiehun parte hartzailetik gora izan zituen egitasmoak eta **zozketaren** emaitzaren arabera, Zuberoa Andres bizkaitarra **egokitu** zen material **sortaren** irabazle. Argazkian, HABEren zuzendari nagusia den Iñaki Uriberen eskutik Zuberoak saria jaso zuen ueña.



Iñaki Uribe eta Zuberoa Andres

Barnetegiko parte-hartzaileak



## RIO CUARTON (CORDOBA, ARGENTINA) ELKARTU DIRA HEGO AMERIKETAKO EUSKARA-IRAKASLEAK

**B2** FEVAk eta Eusko Jaurlaritzak elkarlanean antolatutako "Euskara Munduan" egitasmoaren barruan, urtarrilaren 17an hasi eta 29an bukatu zen **aro** honetako euskara-irakasleen seigarren **barnetegia** Argentinako Rio Cuarton.

2007ko Euskal Gizataldeen Mundu Mailako kongresuan aurkeztu zen irakasle hauen trebakuntza-plana eta aurten berriro ospatuko den kongresuan erabaki beharko da **aurrerantzean** nola jokatu. Tartean, beste barnetegi bat izango da, 2011ko uztaillean, eta horrekin amaitutzat joko da 2007an hasitako aroa.

Esan bezala, Rio Cuartora hurbildu ziren bai Argentinako hainbat irakasle (Rosario, Cordoba, Azul, Viedma, Mendoza, Trenkelauken...), bai Uruguayoak, Brasilgoak, Txilekoak... Guztira, 22 euskara-irakasle. Etorri ezina adierazi zuten Peru eta Kolonbiakoek (arazo ekonomikoak direla eta).

Aukera aparta izan zuten urtean zehar landu zituzten edukiak praktikan jartzeko, mintzamina landu eta elkarren arteko esperientzia trukaketarako. Baina, lorpenik garrantzitsuena, 15 egunez euskaraz bizitzeko aukera izan zutela da, urte osoan zehar ezinezkoa zaiena. Barnetegian, egunero 6 eskola-ordu jasotzeaz gain, egun osoa elkarrekin ematen zuten parte-hartzaile guztiek, eta ondorioz, otorduak, aisia... dena euskaraz gauzatu zen, **hitzordu** hau nork bere hizkuntza-baliabideak praktikan jartzeko aukera ezin hobea bilakaturik.

## OSATUZ: AZTERKETEI BURUZKO MONOGRAFIKOA

**B1** Kalean da dagoeneko azterketen gainean egindako Osatuz monografikoa. Bertan, hizkuntza-**eskakizunak** edo mailak **egiaztatzeko** proben nondik norakoak azaltzen dira; baita horiek gainditzeko **aholku** batzuk eman ere, proba idatziari nahiz ahozkoari begira. Bestetik, azterketetatik jasotako **akatsak** bildu dira, horietaz jabetzeaz gain ariketa gisa praktikatzeko. Azkenik, probetan erabiltzen diren zenbait ariketa jasotzen dira bertan, azterketa bat egiterakoan **azterketariek** zer aurkituko duten aldeaz aurretik jakin dezaten eta, **bidenabar**, eredu gisa jarritako ariketa horiekin praktikatzea ahal izateko.

Irakurmenarekin eta Idazmenarekin lotutako ariketak jarri ditugu paperean, eta Entzumen eta Mintzameneko trebetasunarekin lotutakoak, audioak barne, aldizkariarekin batera doan CDan. Material guztia mailaka eta trebetasunka dago sailkatuta.

Alea PDF formatuan nahi izanez gero, berriz, jo helbide honetara:

[www.ikasbil.net/osatuz](http://www.ikasbil.net/osatuz)



**AHOLKU.**- *Consejo. Conseil.*

**AKATS.**- *Fallo, error. Défaut.*

**ARO.**- *Época. Époque.*

**AURRERANTZEAN.**- *De ahora en adelante. Dorénavant.*

**AZTERKETARI.**- *Examinando/a. Candidat/e à un examen.*

**BARNETEGI.**- *Internado. Internat.*

**BIDENABAR.**- *De paso. En passant.*

**EGIAZTATU.**- *Certificar. Vérifier.*

**EGOKITU.**- *Adecuar. Aménager.*

**HITZORDU.**- *Cita. Rendez-vous.*

**SORTA.**- *Colección. Collection.*

**ZOZKETA.**- *Sorteo. Tirage au sort.*







Testua: Iker Barandiaran Zubiate  
(Arteman Komunikazioa)  
Argazkiak: Josetxo Arantzabal

## Gurebook.com, euskal liburu elektronikoen denda



Bi urte baino gehiago pasa dira Euskal Herrian lehen liburu elektronikoak salgai jarri zituztenetik. Hasierako haiek kanpoko idazleen lanak ziren, baina 2009an Euskal Herriko argitaletxeak ere hasi ziren alor horretan lanean. Hain zuzen ere, Elkar, Alberdania eta Erein hasi ziren liburuak formatu digitalean ekoizten eta atzetik, beste batzuk etorri dira. Gainera, Gurebook.com webgunea sortu zuten, euskal idazleen liburu elektroniko guztiak online denda batean batzeko ahaleginean. Atariak, ordea, badu beste helbururik, formatu digitalak izan ditzakeen berrikuntza eta aldaketen adi dagoen plataforma ere izan nahi baitu.

Euskal Herriko argitaletxe gehienetako arduradunek argi dute liburu digitalen sasoia heldu dela. Horrek ez du esan nahi paperean argitaratutako liburuak baztertu direnik, ezta irakurle gehienek euskarri elektronikoan irakurtzen dutenik ere, baina bai teknologia hori literaturaren mundura heldu dela eta bertan gertatzeko asmotan, gainera.

Esan bezala, hainbat euskal argitaletxe hasi dira liburu berriak ohiko formatuaz gain, era digitalean ere merkaturatzen, baita kasu batzuetan beraien katalogoko zenbait liburu zaharragoei ere bertsio digitalak gehitzen. Asko dira dagoeneko euskal idazleen liburu digitalak, eta argitaletxe gehienek online saltzen dituzte.

Ohitura eta ekoizpen-aldaketa horien guztien jakitun eta garaiei aurre egin nahian, 2010. urte hasieran Plazagunea eta Libenet, biak garapen teknologikoko enpresak, liburu digitalen iraultzari erantzun teknologiko eta komertzial sendo bat emateko lanean hasi ziren. Hala, argitaletxe, idazle eta liburuen alorreko profesionalen aurrean Gurebook.com ekimena aurkeztu zuten. Orduetik hona, asko handitu da liburu digitalen gaineko interesa eta zurrumbiloa.

### Euskal idazleen lanak euskaraz eta gaztelaniaz

Irakurleei begira, Gurebook.com atariak bi helburu nagusi bete nahi ditu: "Interneteko kokagune berean euskal idazleen produkzio guztia bateratzea; eta liburu digitalen deskarga, kudeaketa eta bestelakoen gainean edozeinek izan ditzakeen zalantza guztiak argitzea", azaldu digu Gurebook.com-eko arduradun den Ixiar Uriak.

Lerro hauek idazteko garaian, 259 liburu zeuden eskuragarri Gurebook.com webgunean eta ordurako zortzi argitaletxek egin zuten hitzarmena beraiekin, baina zenbaki horiek uneoro aldatzen ari dira, beste hainbat argitaletxe ekimenera batzeko zorian daudelako. Katalogo erraldoi horretara, euskal idazleek euskaraz zein gaztelaniaz argitaratutako edozein liburu bildu nahi

dute; eta ahaleginetan dabilta bertako idazle eta argitaletxe guzti-guztiak bertan egon daitezen. Ixiar Uriaren ustez, "Gaur egun liburu digitalak **saltoki** erraldoietan saltzen dira eta halakoetan gure idazleak **oharkabean** gelditzen dira. Guk liburu eta egile bakoitzari bere leku propioa eman nahi diogu eta zaindu, nahiz eta ezaguna ez izan".

### Argitaletxei aholku eman

Gurebook.com-eko bultzatzaileek zehaztutako beste **eginbehar** bat argitaletxei aholku ematea eta zalantzak argitzea da. "Argitaletxe batzuetan zalantzak dituzte, zer-nolako inbertsioa den, digitalean argitaratzeak konpentsatuko dien, zer irabazten duten, zer galdu... Horri guztiari erantzuna emateko eta, nahiko balute, paperean dituzten liburuak modu digitalean argitaratzeko laguntza eskaintzen die Gurebook.com-ek, Plazaguneak eta Libenet-ek", argitu du Ixiar Uriak.



Ekimen honen arduradunek ez omen dute liburu digitalaren kontsumoaren gaineko zenbaki zehatzik, baina gaiaren gaineko interesa handitu dela **berretsi** digute, "webgunean dugun blogean galdera eta zalantza asko jasotzen ditugulako". Gainera, Uriaren usteetan, formatuak abantaila ugari ditu, irakurleak **zaletzea** ekarriko dutenak: "**Irakurgailu** digital batean ehunka liburu sar daitezke eta testua norberaren **ikusmenera egokitu**; oso **erosoa** da, eta horrek jendea azkar harrapatuko du".

Gurebook.com-ek epe motz eta ertainera dituen **erronkei** dagokienez, hauek dira aipatu dizkigutenak: webgunean liburu digitalak deskargatzen ikasteko bideo bat zintzilikatuko dute; irakurgailu digitalak zuzenean saltzea aztertzen ari dira; Iparraldeko idazle eta argitaletxeekin harremanak egin nahi dituzte; eta komiki eta aldizkariak digitalizatu eta merkaturatzeko asmoa ere ba omen dute. ■

Informazio gehiago:  
[www.gurebook.com](http://www.gurebook.com)  
atarian



Ixiar Uri, [www.gurebook.com](http://www.gurebook.com)  
atariko arduraduna

**AHALEGIN.**- *Esfuerzo.* Effort.  
**ALOR.**- *Área.* Domaine.  
**BAZTERTU.**- *Zokoratu.* Dejar de lado. Laisser de côté.  
**BERRETSI.**- *Confirmar, corroborar.* Confirmer.  
**EGINBEHAR.**- *Tarea, quehacer.* Tâche.  
**EGOKITU.**- *Adaptar.* Adapter.  
**EKIMEN.**- *Iniciativa.* Initiative.  
**EKOIZTU.**- *Producir.* Produire.  
**EROSO.**- *Cómodo/a.* Commode.  
**ERRALDOI.**- *Oso handia.* Enorme. Très grand/e.  
**ERRONKA.**- *Desafío.* Défi.  
**EUSKARRI.**- *Soporte.* Support.  
**GEHITU.**- *Añadir.* Ajouter.  
**HELDU.**- *Iritsi.* Llegar. Arriver.  
**HITZARMEN.**- *Acuerdo, convenio.* Traité.  
**IKUSMEN.**- *Vista.* Vue.  
**IRAKURGAILU.**- *Lector.* Lecteur.  
**IRAULTZA.**- *Revolución.* Révolution.  
**OHARKABEAN.**- *De manera inadvertida.* Par inadvertance.  
**SALTOKI.**- *Denda.* Comercio, tienda. Magasin.  
**SASOI.**- *Garaia.* Momento, época. Moment.  
**SENDU.**- *Firme.* Ferme.  
**-T(Z)EKO ZORIAN EGON.**- *Estar a punto de.* Être au point de.  
**ZALETU.**- *Aficionarse.* S'attacher à.  
**ZURRUNBILO.**- *Torbellino.* Tourbillon.



**B2** Testuko hainbat hitz/molde aukeratu ditugu, hurrengo esaldiotan nor bere lekuan koka dezazun:

*berretsi, erronka, eginbehar, euskarri, hitzarmen, erraldoi, baztertu, iraultza*

- 1.- Aldeko eta aurkako iritziak entzun ondoren, gure bulegoan berogailuak aldatzeko egitasmoa \_\_\_\_\_ egin da, arrazoi ekonomikoak direla eta.
- 2.- Gure nagusiaren ustez, bezero gehiago lortzea izango da gure aurtengo \_\_\_\_\_ nagusia.
- 3.- Nik ez dut \_\_\_\_\_ proposatu nahi, baina hainbat gauza erroitik aldatzea gustatuko litzaidake.
- 4.- Askotan ahaztu egiten zaigu eskubideez gain \_\_\_\_\_ batzuk ere baditugula.
- 5.- Lasterketaren bukaeran ateratako argazkia aztertu ondoren, epaimahaiak \_\_\_\_\_ egin zuen hasierako emaitza.
- 6.- Nik, aukeran, nahiago dut \_\_\_\_\_ digitala papera baino.
- 7.- Nire ustez, \_\_\_\_\_ orokor bat sinatu beharko genuke unibertsitate guztiekin berdin jokatu ahal izateko.
- 8.- \_\_\_\_\_ eta buruhandien konpartsan hartuko du parte Mikelek.

*Zalantzarik baduzu, jo 45. orrialdera.*





Testua: Iker Barandiaran Zubiate (Arteman Komunikazioa)

## Harrera-familia: Adingabeentzako babesa eta egonkortasuna

📖 “Nahiz eta egunen batean gugandik **aldenduko** diren, guk emandakoa hor geldituko da; **lotura** handia sortzen da eta badakite **aurrerantzean** edozer badute, hemen izango gaituztela”. Hala **laburbildu** du Aiako Aitorrek, harrera-familia bateko kideak, bizi izan duen esperientzia. Harrera-familia programa 1987an **abiarazi** zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak eta **aitzindaria** da Estatuan. Adingabeei babesa emateko hainbat zerbitzu eta egitasmo lantzen ditu, eta Gipuzkoan 270 harrera-familia esperientzia dituzte **abian**.

**G**ipuzkoako Foru Aldundiko Haur eta Gazte Saileko zuzendari den Jose Ignazio Insaustik azpimarratzen du harrera-familia eta adopzioa gauza desberdinak direla: “Egitasmo honen bitartez, adingabeak harrera-familia batean aldi baterako egonaldia egingo du, bere familia biologikoarengandik jasotzerik izan ez duen **arreta** beste familia horrengandik jasotzeko. Gure helburua da, nahiz eta zaila izan, familia biologikoak eman beharreko pausoak betez gero, haur hori eurekin bueltatzea”. Horrez gain, Insaustik nabarmendu du familia biologikoa ez dela beti familia marjinala: “Askok uste dute haurra-aren familiaren arazoak immigrazioarekin edo zailtasun ekonomikoekin zerikusi zuzena dutela, baina, kasu gehienetan, familia biologiko horien egoera ekonomikoa ona edo oso ona izan ohi da”. Hain zuzen ere, arazo nagusia da guraso biologikoek haurrari edo adingabeko seme-alabari ez diotela arreta nahikorik eskaintzen.

### Proba zorrotzak, ezinbestekoak

Departamentuak bi harrera-familia mota koordinatzen ditu: arrunta eta profesionalizatua. Lehena, bikote heterosexualek, sexu berekoek edo pertsona bakarreko familiak osatzen dute. Bigarrenetan, berriz, psikologoek eta pedagogoez familiaren egiturari hartzen dute parte. Aldundiak eskaerak jaso ondoren, hainbat proba egin behar ditu, familia horiek haurra zaintzeko egokiak ote diren jakiteko. “Azterketak gogorrak dira, den-dena galdetzen dute eta etxean ere sartzen dira, baina nik uste



dut egokia dela harrera-familiaren kontrol **zorrotza** egi-tea, haurra etxe horretan ondo egon dadin **ziurtatze-ko**", azaldu du Aiako Aitorrek. Aitorrek eta haren bikote-kide den Josek 11 eta 17 urteko bi ahizpa dituzte etxean, eta hiru urte igaro dira etxean jaso zituztenetik.

Urretxuko Aitorrek eta emazteak, berriz, orain dela 11 urte jaso zuten haur bat etxean. "Adoptatzeko asmotan genbiltzan, baina Aldundiak informazioa bidali zigunean konturatu ginen bazegoela Gipuzkoako haurrak aldi baterako hartu eta laguntzeko aukera. Orduan ez genuen horretan pentsatu, baina hilabete batzuk pasa eta gero izena ematea erabaki genuen. Hala, ikastaroak gaintitu eta zortzi hilabeteko haurra jaso genuen gurean". Gerora, haurraren eta haren familia biologikoaren ezaugarriengatik, hartutako haurra adoptatzeko aukera eman zieten. "Harrera-familian parte hartuz gero, oso argi izan behar da ez dela adopzio bat, haurrak beste familia bat duela; hala, gurea salbuespena izan da". Are gehiago, Aitorrek eta emazteak 2001ean dei bat jaso zuten Aldunditik haur jaioberri bat hartzeko, eta hura ere eurekin bizi da ordutik hona.

## Detektatze-lana

Gipuzkoako Foru Aldundia Espainian aitzindaria da adingabeak babesteko zereginean. Aspalditik ari da lanean adingabeei babesa ematen eta asko zaindu du laguntza behar duten haurren **antzemate**-lana. "Zenbat eta lehenago **artatu** haurrak, orduan eta aukera gehiago ditugu haiei laguntzeko", dio Jose Ignazio Insaustik. Eta hona-koa gaineratu du: "Haurrek **salaketak** egiteko aukerarik ez dutenez, herritarrei eskatu nahi diegu laguntza behar

duen haurren baten berri izanez gero, Aldundira, gizarte zerbitzuetara, Ertzaintzara edo Udaltzaingora jotzeko; hala ere, inongo erabakirik hartu aurretik, profesionalak kasu bakoitza **ikuskatuko** dute".

## Gogorra, baina positiboa

Urretxuko Aitorrek onartu digu une zailak eta gogorrak egon badaudela, baina programan parte hartzea bizitzan gertatu zaien gauzarik onena izan dela. Aitorrek, Aiako-ak, ordea, zailtasun handiagoak izan ditu: "11 eta 17 urte ez dira adin errazak eta ulertzekoa da beraientzat bat-batean guztia aldatu zela: herria, familia... Batzuetan, Joseri eta niri esaten digute guk ezin diegula **agindurik** eman; halakoetan, **burumakur** gelditzen gara, baina badakit nire alabak balira ere, egoera bera errepikatuko litzatekeela. Hala ere, etxera etorri zirenetik askoz hobeto daude eta asko maite dugu elkar. Ikaragarri ematen dizute haurrek, edozeini gomendatuko nioke egitas-moa". ■



Jose Ignazio Insausti,  
Gipuzkoako Foru Aldundiko  
Haur eta Gazte Saileko  
zuzendaria.

Argazkia: Jostexo Aranizabal

**ABIAN**.- Martxan. *En marcha*. En marche.  
**ABIARAZI**.- Poner en marcha. Mettre en marche.  
**ADINGABE**.- Menor de edad. Mineur/ère.  
**AGINDU**.- Orden. Ordre.  
**AITZINDARI**.- Pionero/a. Pionnier/ère.  
**ALDENDU**.- Alejarse, separarse. S'éloigner.  
**ANTZEMAN**.- Detectar. Percevoir.  
**ARRETA**.- Atención. Attention.  
**ARTATU**.- Zaindu. *Cuidar, asistir*. Soigner.  
**AURRERANTZEAN**.- *De ahora en adelante*.  
Dorénavant.  
**BABES**.- Protección. Protection.  
**BURUMAKUR**.- Cabizbajola. Tête basse.  
**EGONKORTASUN**.- Estabilidad. Stabilité.  
**HARRERA-FAMILIA**.- *Familia de acogida*.  
Famille d'accueil.  
**IKUSKATU**.- Revisar, inspeccionar. Examiner.  
**LABURBILDU**.- Resumir. Résumer.  
**LOTURA**.- Vínculo. Liaison.  
**SALAKETA**.- Denuncia. Délation.  
**ZIURTATU**.- Asegurar. Assurer.  
**ZORROTZ**.- Riguroso/a. Sévère.



**B1** Erantzun **egia** ala **gezurra** den.

Adibidea:

	Egia	Gezurra
0.- <i>Harrera-familia Gipuzkoan bakarrik dago martxan.</i>	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>
1.- <i>Harrera-familia eta adopzioa gauza bera dira.</i>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
2.- <i>Haurra gutxitan itzultzen da bere familia biologikoarekin.</i>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
3.- <i>Familia biologikoa beti da marjinala.</i>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
4.- <i>Arreta eza izaten da arazo nagusia.</i>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
5.- <i>Aldundiak proba ugari egiten dizkio familiari.</i>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
6.- <i>Oso garrantzitsua omen da arazoak dituzten haurrak ahalik eta azkarren antzematea.</i>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
7.- <i>Edozer erabaki aurretik kasu bakoitza aztertu egiten da.</i>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
8.- <i>Askotan burumakur egoten dira egitasmo honetako haurrak.</i>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

Argazkiak: Kastonea landa-etxea



## Euskaraz aritzeko, Baztango Kastonea eta Ballenea landa-etxeak

**A2** Nafar Pirinioetako Baztan **bailarako** Erratzu herrira jo dugu **Kastonea eta Ballenea** izeneko **landa-turismoko** etxeak bisitatzen. Erratzu 500 **biztanle** dituen herri txiki bat da, eta bertako familia euskaldun gazte batek duela urte batzuk, bi landetxe hauek jarri zituen martxan. Hainbat orduz nahiz egunetan zehar euskaraz bizi nahi dutenentzako aukera ezin hobea eskaintzen dute.

**H**erriaren **erdigunean** daude kokatura landa-etxeak eta guztira 40 lagunentzako **ostatu hartzeko** lekua dute. Horretaz gain, Baztango gastronomiaz gozatzeko aukera ere eskaintzen dute, Kastonean kokatzen den jatetxe txiki batean. Bertan, baserrian **ekoiztutako** haragi, arrautza, esne eta barazkiekin prestatutako platerak dasta daitezke.

**Mantenu osoko** egonaldiak eskaintzen dituzte eta gainera, giro euskaldunean bizitzeko aukera. Bai landa-etxean bertan, bai Erratzuko herritarrekin euskaraz hitz egiteko **parada** baitago. Bestalde, **aisialdian abeltzain** lanetan parte hartu nahi duenak, badu aukerarik baserrian.

Horretaz gain, nahi izanez gero, ibilaldi desberdinak eta talo edo **esneki** tailerrak antolatzen dituzte, dena euskaraz. Bileretarako 100m<sup>2</sup> wifi-dun **areto** bat ere badute.

### • OHIKO ESKAINTZA:

Logela **bikoitzak** komunarekin (bakarkako, hiruko zein lauko logeletara molda daitezke).

Mantenu osoa, gosaria, bazkaria eta afaria baserriko produktuekin.

Xorroxin **ur-jauzira** egun erdiko ibilaldia, euskaraz gidatua. Baserrira bisita, bertako bizimodua ezagutzeko eta eguneroko lanetan parte hartzeko.

Gastronomia tailerra: taloak, gazta, jogurtak...

### • BESTE HAINBAT JARDUERA:

- Euskal kantariekin mahai osteak eta bertso-afariak.
- Euskal artisauen erakusketa: kaikugintza eta burdinaren forjaketa.

Inguruan, bisita turistikoak egin daitezke: Zugarramurdi, Urdax, Amaiur, Baztan eta Bozateko museoak, Bertizko jaurria, Donibane Garazi...

Gutxieneko egonaldia 2 gauetakoa da eta urte gutzian zabalik daude landa-etxeak.



Bi landa-etxeak, kanpotik ikusita



Informazio gehiago:

[www.kastonea.com](http://www.kastonea.com)

[info@kastonea.com](mailto:info@kastonea.com)



Landa-etxearen barruko ikuspegia: 100m<sup>2</sup>ko gela handi bat dute



Idoia, Xanti eta beren hiru seme-alabak



Testua: Iker Barandiaran Zubiare (Arteman Komunikazioa)

## Idoia Escudero: "Barnetegiak antolatzeke asmotan gabiltza".

**A2** Idoia Escudero eta Xanti Dendarieta dira *Kastonea* eta *Ballenea* landa-etxeetako arduradunak. Bertan ostatua hartzen dutenek inguru zoragarria ezagutzeaz gain, aukera dute euskaraz mintzatu eta baserriko lana ezagutzeko.



Idoia Escudero, seme-alaba nagusiek

**ABELTZAIN.**- Ganadero/a. Éleveur/euse.

**AISIALDI.**- Tiempo libre. Loisir.

**ARETO.**- Sala. Salle.

**ARMARRI.**- Escudo. Blason.

**ARRAS.**- Oso. Muy. Très.

**BAILARA.**- Región, comarca. Vallée.

**BIKOITZ.**- Doble. Double.

**BIZTANLE.**- Habitante. Habitant.

**EKOIZTU.**- Producir. Produire.

**ERDIGUNE.**- Centro. Centre.

**ESNE-BEHI.**- Vaca lechera. Vache laitière.

**ESNEKI.**- Producto lácteo. Produit laitier.

**ETXALDE.**- Baserria. Caserío, hacienda. Ferme.

**GALTZADA.**- Calzada. Chaussée.

**GASNA.**- Gazta. Queso. Fromage.

**LANDA-ETXE.**- Casa rural. Maison de campagne.

**LANDA-TURISMO.**- Agroturismo. Agrotourisme.

**MANTENU OSO.**- Pensión completa. Pension complète.

**OSTATU HARTU.**- Hospedarse. S'heberger.

**OTORDU.**- Comida. Repas.

**PARADA.**- Aukera. Ocasión, oportunidad. Opportunité.

**SOLAS.**- Elkarriketa. Conversación, charla. Conversation.

**UR-JAUZI.**- Salto de agua, cascada. Cascade.

### Noiz jarri zenuten martxan *Kastonea*?

Orain dela 12 urte jarri genuen martxan. Senarra eta biok nekazariak gara, eta **esne-behiak** ditugu. Garai hartan, baserriko gastuei aurre egiten laguntzeko gure bizilekua den *Kastonea* etxea konpondu eta **landa-etxe** bihurtu genuen.

### *Kastonean* zerbitzu ezberdinak eskaintzen dituzue...

Urteekin gure jarduera bi landa-etxetara zabaldu da: *Kastonea* eta *Ballenea*. Horrez gain, badugu *Kastonea* jatetxea ere. Gure etxetara taldeak etortzen dira eta horietako bakoitzean 20 pertsonendako lekua dago. Jatetxean, bezeroek eskatuz gero, gosariak, bazkariak eta afariak ematen ditugu. Prestatzen ditugun **otordu** guztiak etxeko elikagaiekin eginda daude: esnea, haragia, **gasna**... Baztango baserrietan denetatik daukagu. Hala ere, astelehenetik ostiralera, batez ere, **etxaldean** egiten dugu lan.

### Esplotazio handia al daukazue?

Baratze txiki bat daukagu eta animalia dezente: behiak (esnetakoak eta haragitakoak), oiloak, zerriak, behorak, zaldiak... Bezeroek aukera dute baserriko lana ezagutu eta nahi badute, lan egiteko, baina haurrak dira gehien gozatzen dutenak.

### Zuek euskaldunak izanda, bezeroei euskara praktikatzeko aukera eskaintzen diezue, ezta?

Bai, nafar askok aukera gutxi izaten dute euskara praktikatzeko, eta gure herrian **solas** guztia euskaraz da, gu Baztango euskaraz aritzen gara. 100 metro koadroko gela handi bat daukagu eskolara emateko eta gure asmoa da barnetegiak bertan antolatzea; horregatik taldeei eta irakasleei dei egiten diegu, hona etor daitezten.

### Orain arte, hurrekin egin dituzue tailerrak...

Bai, eskoletatik haurrak etortzen dira, eta guk tailerretan euskaraz irakasten diegu taloak eta gasna nola egin. Azaltzen diegu, baita ere, herriko bizimodua nolakoa den, nola bizi zen lehen jendea, nola aldatu den nekazaritza... Ikasleetatik etortzen dira gehienbat, Iruñetik-eta. Iruñean ume asko euskaraz ikasten ari dira, baina ezin izaten dute euskaraz hitz egin.

### Inguruetan ba al da bisitatzeko moduko lekuri?

Bai. Baztango herriak eta etxeak **arras** bereziak dira, askok **armarriak** ere badituzte. Gainera, Euskal Herriko herrietako giroa ezagutzeko aukera dago hemen. Horrez gain, Xorroxineko ur-jauziak gertu daude, mendiak ere badira, erromatarren **galtzadak**, Iparla, Iparralde oso hurbil daukagu... Leku pila bat daude bisitatzeko eta ibilaldiak egiteko: Bertizko jauregia, Baigorri, Donibane Garazi... ■



**B2**

Demagun interesatzen zaizula asteburu bat *Kastonean* ematea.

Idatz ezazu mezu bat Landa-etxera bidaltzeko modukoa dena, informazio zehatzagoa eskatuz (zehaztu zenbat izango zareten, noiz joateko asmoa duzuen, galdetu prezio zehatza ...).

Idatzitakoan, guri bidaltzen badiguzu ([argitalpenak@habe.org](mailto:argitalpenak@habe.org)), beti bezala, trukean oparixko bat jasoko duzu.





# ELE eta ALE

Hizkia, hitza, hizkuntza, elea.  
 Hizkuntza, hitza, hizkia, alea.  
 Ele-alea. Eleak aletuz,  
 Ele-alea, aleak eletuz.  
 Ele-alea



A2

euskadi  
irratia

Bigarren ikasturtea du HADE eta Euskadi Irratiaren arteko *Ele-alea* elkarlanak, astelehenero, gaueko 21:05etik 21:30era, Xabier Sukia kazetariak euskaldun berriei zuzendutako irratsaioak.

Badu, irratsaio honek, tarte berezi bat: *Ele-alean zure euskara hobetzen* izenekoa. Bertan, Ele (Elene) eta Ale (Alejandro) hizketan aritzen dira eta bietakoren batek beti egiten du hanka-sartzeren bat. Azalpen egoki bat emandakoan, ordea, zuzendu egiten du okerra eta era horretara, bere euskara hobetu egiten du.

Hurrengo orrialdeotan, 2010eko irailetik abendura bitarteko ELE eta ALERen tarteak\* (guztira, hamar) aukeratu eta hona ekarri dizkizugu. Idatzita aurkituko dituzu hemen ariketez eta erantzun-orriez osatuak. Gogoan izan, hala ere, [www.ikasbil.net](http://www.ikasbil.net) atarian entzungai dituzula denak, *Ele-alea* irratsaioetan.

\*Oharra: 10 tarte hauen gaineko ariketa orokor bat proposatuko dizugu, azalpenak behar bezala ulertu dituzun ikusteko [www.ikasbil.net](http://www.ikasbil.net) atarian.



## SESIOA

**ELENE:** Zer? Zer moduzko pelikula ikusi duzu? Ez zenuen ba lo hartuko?

**ALEJANDRO:** Ez, ez, aho zabalik egon naiz begira!

**ELENE:** Pelikularen izena?

**ALEJANDRO:** "Sagarraren denbora"

**ELENE:** Eta noiztik ematen du sagarrondoak urrezko maskorra?

**ALEJANDRO:** Mozkorra ni?

**ELENE:** Mozkorra ez! Mas-ko-rra! Urrezko maskorra, *Concha de oro*.

**ALEJANDRO:** Ze Kontxi eta ze Kontxa, gero? Eta zer moduzkoa zure pelikula?

**ELENE:** Pelikula ez, pelikulak. *Sesio guztiak ikusi ditut: goizeko sesioa, arratsaldeko sesioa, gaueko sesioa...*

**ALEJANDRO:** Ze sesio eta ze sozio! Ene, Ene, Elene!



A2

Aukera ezazu erantzunik egokiena:

### 1.- Zertan aritu dira ELE eta ALE?

- a.- Zinemara joan dira.
- b.- Telebista ikusten aritu dira.
- c.- Lotan.

### 3.- Eta ELERi?

- a.- Ez du esan.
- b.- Asko gustatu zaizkio.
- c.- Ez zaizkio batere gustatu.

### 2.- Gustatu al zaio ALERi?

- a.- Ez du esan.
- b.- Bai, asko.
- c.- Ez, aho zabalka aritu da.

### 4.- Zenbat film ikusi dituzte?

- a.- ELEK film asko ikusi ditu.
- b.- ALEK film bat baino gehiago ikusi ditu.
- c.- Film bana ikusi dute.



**Badugu, bai, arazo txiki bat SESIO hitzarekin.**

*Sesioa* hitza entzunda, gaztelaniazko SESIÓN hitzaren kidea dela pentsa liteke. Baina, ez da horrela gertatzen. Hementxe duzu hiztegiak dioena: *sesioa*, istilua edo liskarra. Euskaraz SESIÓN esateko, SAIO hitza erabili behar dugu. Ez ahaztu!


**Beraz, argi dago euskarazko SESIO hitzak ez duela zerikusirik gaztelaniazko SESIÓN hitzarekin. Utzi sesioak eta heldu saioari!**

**Elek horrela zuzendu du bere akatsa:**

**ELENE:** Pelikula ez, pelikulak! *Saio guztiak ikusi ditut: goizeko saioa, arratsaldeko saioa, gaueko saioa...*

**ALEJANDRO:** Ele, Ele, Elene!

## BASO BAT UR ALA UR BASO BAT?

- ALEJANDRO:** Egun on, Elene...
- ELENE:** Egun on, zerbait esatearren... (buruko minez, aje latza)
- ALEJANDRO:** Zer moduz atzoko afaria? (ironiaz)
- ELENE:** Atzo ondo, gaur komeriak!
- ALEJANDRO:** Atzo jai, jai, jai eta gaur ai, ai, ai, ai!
- ELENE:** Uff... a ze biharamuna, a ze ajea...  *atera ur baso bat, mesedez!*
- ALEJANDRO:** Nola? Zertarako behar duzu ur baso bat?
- ELENE:** Zertarako izango da ba, edateko?
- ALEJANDRO:** Tori (baso soinua) hemen duzu zure ur basoa!!
- ELENE:** Hara Alejandro, ez nazazu berotu, e? Egariak amorratzen nago eta baso hori hutsa dago!
- ALEJANDRO:** Zuk ur baso bat eskatu didazu eta horixe atera dizut nik, ur baso bat. Ene, Ene, Elene!!



**A2** Esan hurrengo esaldiok **egia** ala **gezurra** diren:

	EGIA	GEZURRA
1.- Elenek afaria du gaur gauean.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
2.- Elenek gaur antzezlan bat ikusiko du.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
3.- Elene egarri da.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
4.- Alejandrok baso bat ur eman dio.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
5.- Alejandrok ur baso bat eman dio.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

**HORTIK IBILI  
ETA ERABIL!**

## Hortxe dago zalantza "baso bat ur" ala "ur baso bat"?


Ez dira, bada, gauza bera. "Baso bat ur" esaten badugu, ura azpimarratzen ari gara; hau da, urez betetako baso bat. Horrelakoetan, lehenbizi, kantitatea aipatzen dugu, eta, gero, jeneroa; adibidez, "dozena bat arrautza", "basokada bat olio" edo "sei kilo kafe" esaten dugunean bezalaxe.

"Ur baso bat", berriz, ura edateko balio duen basoa litzateke, edalontzia, baina urik ez duena. Gogoan hartu eta taberna edo jatetxera zoazenean, behar bezala eskatu eta ez nahastu biak!

Beraz, "botila bat xanpain edan du" esaten dugunean, botila bat bete xanpain edan duela esan nahi dugu. Kantitateari ematen diogu garrantzia.

Eta "xanpain-botila bat puskatu zaio" esaten dugunean, botilaren nolakoa azpimarratzen dugu; hau da, xanpain-botila dela, eta ez sagardoa edo esnea duena. Egari bazara, utzi ur basoa eta eskatu baso bat ur.


Elek horrela zuzendu du bere akatsa.

- ELENE:** Uff... A ze biharamuna, a ze ajea...  *atera baso bat ur, mesedez!!*
- ALEJANDRO:** Ele, Ele, Elene!!



## ZORIONAK

**ALEJANDRO:** Badator, badator! Denok prest, e! denok prest!  
Zorionak zuri! Zorionak beti, Zorionak, Elene, zorionak beti!

**ELENE:** Ai, ai! Eskerrik asko, benetan! Zerbitzari, atera edatekoa! Gaurkoa, nire kontu,  nire zorionak dira eta!


**ALEJANDRO:** Ze zorionak eta ze zoritxarrak... Ene! Ene, Elene!

Elkarri opa dizkiogun zorion-agurretan badago arazo edo nahaste txiki bat.

"Gaur nire zorionak dira!" Honelakorik entzuten baduzu, jakizu gaizki esanda dagoela, "Urtebetetzea" baita urteak betetzen diren eguna, jaiotegunaren urtemuga, alegia. Modu zuzena, beraz, hauxe da: "Gaur nire urtebetetzea edo urtemuga da". Eta, aitzitik, norbaiti zorioneko zerbaite gertatu zaionean, orduan bai; orduan, "zorionak!" esango diogu.

Urrutira joan gabe, etxean eta kalean entzun ohi ditugun zorion-agurretan entzuten da hori! la egunero izaten baita norbaiti zorionak! esateko aukera. Eta, non dago bada, okerra? Kasu honetan, Elenek, gure Elek, bere urtebetetzea dela esan ordez, bere zorionak direla esan du. Hortxe dago okerra. Alegia, ez da esan behar "Beñaten zorionak ospatu behar ditugu". Beñaten zorionak ospatu ordez, Beñaten urtebetetzea edo eguna ospa dezagun.

Ulertu baduzue, zorionak! Eta erabiltzen baduzue ere bai, zorionak! Elek ulertu du eta horrela zuzendu du bere akatsa:

**ELENE:** Ai, ai, eskerrik asko, benetan! Zerbitzari, atera edatekoa! Gaurkoa, nire kontu!  Nire urtebetetzea da eta!

**ALEJANDRO:** Ele, Ele, Ele, Elene!

ZURE  
EUSKARA  
HOBETZEN



**A2** Ondorengo zein egoeratan esan dezakegu zorionak?

	BAI	EZ
1.- Norbaitek ondo egindako lana azpimarratzeko.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
2.- Gure urtemuga dela esateko.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
3.- Lana lortu duen norbaiti esateko.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
4.- Gure lagunaren baten urtebetetzea dela esateko.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
5.- Asko saiatu ondoren, zerbaite lortzen duenari.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

Hizkia, hitza, hizkuntza, elea.  
Hizkuntza, hitza, hizkia, alea.  
Ele-alea. Eleak aletuz, Ele-alea, aleak eletuz.  
Ele-alea



## OILO IPURDIA JARRI

- ELENE:** Aizu, ikusi al duzu telebista?
- ALEJANDRO:** Bai, bai, ikusi dut. Azkenaldian ez dago albiste txarra besterik.
- ELENE:** Gosea, lurrikarak, gerra... eske pentsatze hutsarekin 🗑️ "Se me pone la carne de gallina"
- ALEJANDRO:** Baina, baina, baina... ze "gallina" eta ze "papagallo"... Ene, Ene, Elene!

Gure Eleri gertatu zaion bezala, erdarazko esamolde asko ditugu buruan sartuta, baina denek dute irtenbide on bat euskaraz esateko garaian. Horietako esamolde bati buruz ariko gara tarte honetan: *oilo ipurdia jarri*. Zer da oilo ipurdia jartzea?

Zirrara, lilura edota izua adierazten du "oilo-ipurdia jarri" esaldiak. Eta bistan da gure larruan sortzen diren pinportatxoek oiloaren azalekoekin duten antzari erreparatuta sortu dela esaldi hori. Beraz, gaztelaniazko "ponerse la carne de gallina" esaldiaren ordainetan erabili ohi dugu "oilo ipurdia jarri".

Hortaz, horrelako esaldiak egin ditzagun aurrerantzean: *Oilo ipurdia jarri zait hitz horiek esan dizkidazunean* edo *oilo ipurdia jarri zaigu hari entzun eta gero*. Ia egunero izaten dugu lilura, poza edo izua adierazteko aukera.

Kasu honetan, Elene, gure Ele, telebistari begira sentitu da horrela. Bi aldiz pentsatu eta gero, zuzendu du bere okerra:

- ELENE:** Gosea, lurrikarak, gerra... 🗑️ Eske... *pentsatze hutsarekin oilo ipurdia jarri zait*.
- ALEJANDRO:** Ele, Ele, Elene!

HORTIK IBILI  
ETA ERABIL!




**A2** Zure ustez, zein egoeratan da posible oilo ipurdia jartzea?

	BAI	EZ
1.- Arte-lan zoragarri bat ikustean.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
2.- Film zirrargarri bat ikustean.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
3.- Albiste on bat jasotzean.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
4.- Hunkitzen garenean.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
5.- Ezusteko handi bat gertatzen denean.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

Hizkia, hitza, hizkuntza, elea.  
Hizkuntza, hitza, hizkia, alea.  
Ele-alea. Eleak aletuz, Ele-alea, aleak eletuz.  
Ele-alea



## PLANTAK EGITEN

- ALEJANDRO:** Aizu, Elene, zertan ari zara liburu handi horrekin?
- ELENE:** Ixxxxxxxxxxxxx! Ixo! Liburutegian zaude, ez zaude tabernan, e? Ikasten ari garenoi errespetua, mesedez!
- ALEJANDRO:** Kar, kar, kar... zu ikasten! Sekula ez duzu eta liburu bat osorik irakurri!
- ELENE:** Hara, hara, Alejandro! Nahikoa da, e? Ze hizkuntzatan esan behar dizut isilik egoteko?
- ALEJANDRO:** Nahikoa da!  *Ez zaituzte ikasle landareak egiten hasi! Ezagutzen zaitut eta!*
- ELENE:** Ze landare eta ze geranio! Ale, Ale, kale!



A2

Irakurri duzun egoera deskribatzeko esaldiak bildu ditugu hemen: esaldietako hutsuneak osatu hitz bat idatziz:

- 1.- Ele eta Ale \_\_\_\_\_ daude.
- 2.- Ele \_\_\_\_\_ ari da.
- 3.- Aleren arabera, Elenek ez du sekula \_\_\_\_\_ bat irakurri.
- 4.- Elenek behin baino gehiagotan esaten dio Aleri \_\_\_\_\_.
- 5.- Alek ikasle \_\_\_\_\_ egiten ez hasteko esango dio.

Kasu honetan, gure Alek "Ez ikasle landareak egin" esan duenean, ikasle plantak ez egiteko esan nahi zuen, plantak eta landareak ez baitira gauza bera.


Planta hauek ez dute zerikusirik landareekin, ez horixe. Plantak egitea itxura egitea da euskaraz eta ez landareak aldatzea edo ureztatzea. Era berean, *planta* hitzak *itxura* esan nahi du.

Hortaz, *planta* hitzarekin honelako esaldiak egin ditzakegu:

*Ez zaituzte lotsati plantak egiten hasi, badakigu eta ez duzula lotsarik!*  
*Planta handiko pertsona dela iruditzen zait, itxura oneko pertsona, alegia.*

Kontuan izan, beraz, eta ez jakintsu plantak egin!

Alek horrela zuzendu du bere okerra:

- ALEJANDRO:** Nahikoa da, e?  *Ez zaituzte ikasle plantak egiten hasi! Ezagutzen zaitut eta!*
- ELENE:** Ale, Ale, bale!






## AMUARI HELDU

**ALEJANDRO:** Zer, Elene, arrantzan hasi al zara orain?

**ELENE:** Bai, hemen ari naiz arrantzan, arrainen bat harrapatzeko esperantzan.

**ALEJANDRO:** Bi ordu daramatzazu ezer harrapatu gabe. Segi, segi, esperantza da eta azkena galtzen dena.

**ELENE:** Hara, hara, Alejandro! Pikatu du! Pikatu du!  *Arrainak amuan pikatu du!*

**ALEJANDRO:** Ze pikatu eta ze pekatu! Ene, Ene, Elene!



A2

Zein litzateke, zure ustez, elkarrizketa honetarako izenburu egokia?

- 1.- Alejandro arrantza egitera joan da.
- 2.- Eleneren esperantza.
- 3.- Itxaropena galdua.
- 4.- Eleneren arrainak amuari heldu dio.
- 5.- Arrainak amuan pikatu du.

HORTIK IBILI  
ETA ERABILI!

Kaian arrantzan ari dela, zera esan du Elenek: "Arrainak amua pikatu du". Ea nola edo nondik heltzen diogun amu honi!

Euskaraz ez da zuzena "amuan pikatu du" esatea. Horren aldean, askoz ere egokiagoa da "amuari heldu dio" edo "arraina amuan lotu da" esaten badugu. Eta beste horrenbeste esango genuke "amuan erori" esapideari buruz. "Amuan erori da" esatea baino askoz ere esapide txukunagoa da euskaraz "amua irentsi du".

Beraz, "Legatzak amuan pikatu du" esan ordez, "Legatzak amuari heldu dio" edo "Legatza amuan lotu da" esan beharko genuke. Ondo dago "Amuari heldu dio" edo "Amuan lotu da", "Amua irentsi du" eta gaizki dago "Amuan pikatu du" eta "Amuan erori da" esatea.

Elenek hasiera batean amua irentsi badu ere edo amuari heldu badio ere, horrela zuzendu du bere okerra:

**ELENE:** Hara, hara, Alejandro!  *Heldu dio, heldu dio! Arrainak amuari heldu dio!*

**ALEJANDRO:** Ele, Ele, Elene!

Hizkia, hitza, hizkuntza, elea.  
Hizkuntza, hitza, hizkia, alea.  
Ele-alea. Eleak aletuz, Ele-alea, aleak eletuz.  
Ele-alea



## UDALA ETA UDALETXEA

- ALEJANDRO:** Udaltzain madarikatua!
- ELENE:** Zer duzu oraingoan?
- ALEJANDRO:** Isuna jarri ez dit, ba!
- ELENE:** Ale, autobusak ordu erdia darama bozina joka, pasa ezinik, zuk autoa gaizki aparkatu duzulako.
- ALEJANDRO:** Nola ordu erdia? Bost minutu izan dira eta!
- ELENE:** Niri bost zenbat minutu izan diren, baina hemen ezin da autoa aparkatu.
- ALEJANDRO:** 🙌 *Udaletxeko ordezkariak honen berri izango dute. Salaketa jarriko dut bihar goizean. Lehenengo orduan udalera joango naiz.*
- ELENE:** Ze udal eta ze udaletxe! Ale, Ale, kale!

Noiz erabili behar dugu Udala eta noiz Udaletxea? Ea lortzen dugun bi ele hauek aletzea!

Udala eta udaletxea, eta ez dira gauza bera. "Udala" udalerrri bat administratzeko alkateak, zinegotziek eta abarrek osatzen duten giza talde edo multzoa da eta hortik hainbat hitz sortu dira: "udalbatza", "udalerrria", "udaltzaina" eta baita "udaletxea" bera ere.

Baina, jakina, azken hitz honek adierazten duen bezala, "udaletxea" edo "herriko etxea" eraikin bat da, udal-administrazioaren zerbitzuak eta bulegoak biltzen dituen eraikina, hain zuzen ere.

Beraz, ez esan "Barakaldoko udaletxeko alkatea", baizik eta "Barakaldoko udaleko alkatea". Ez esan "Udaletxeak erabaki du" baizik eta "Udalak erabaki du" eta ez esan "Udaletxeak erosi ditu lur horiek" baizik eta "Udalak erosi ditu lur horiek"

Alejandrok, Alek, udala eta udaletxea nahastu egin ditu hasieran, baina horrela zuzendu du bere okerra:

- ALEJANDRO:** 🙌 *Udal ordezkariak honen berri izango dute. Salaketa jarriko dut, bihar goizean lehenengo orduan udaletxera joango naiz.*
- ELENE:** Ale, Ale, bale!



A2

Bikote bakoitzean, zein da zuzena?

- 1.- Udaletxeko arduradunek/Udal arduradunek eman zieten hasiera herriko festei.
- 2.- Zubi berri bat egitea proposatu du Donostiako udalak/udaletxeak.
- 3.- Isuna ordaindu nahi baduzu, udalera/udaletxera joan beharko duzu.
- 4.- Ura moztea udaletxearen/udalaren esku dago.



## BENTAJA EGIN

**ALEJANDRO:** Egun on, Ele.

**ELENE:** Egun ona zuretzat izango da!


**ALEJANDRO:** Zer duzu, bada?

**ELENE:** Sekulako buruko mina! Norbait nire buruan danborra jotzen ari dela esango nuke.

**ALEJANDRO:** Estresa izango da...

**ELENE:** Zuk uste?

**ALEJANDRO:** Goazen taberna-zulotik kanpora haize freskoa hartzera!

**ELENE:** Eskerrik asko, Ale.  *Ordubeteko ibilaldi honek abantaila egin dit.*

**ALEJANDRO:** Ze abantaila eta ze pantaila! Ene, Ene, Elene!

HORTIK IBILI  
ETA ERABILI!



**A2** Nor da? Aukera ezazu esaldi bakoitzarekin lotutako pertsonaia:

	Elene	Alejandro
1.- Buruko minez dago.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
2.- Buruko minaren arazoia estresa dela uste du.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
3.- Gaurkoa ez da egun ona beretzat.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
4.- Tabernatik ateratzea proposatuko du.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
5.- Ibilaldiak bentaja egin dio.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

*Abantaila egin eta bentaja egin ez dira gauza bera. Goazen bi ele hauek aletzera:*

Kontrakoa dirudien arren, ez du, ez, zerikusirik abantailak edukitzearekin. Adibide bat jarriko dugu: *Oso makal zebilen Iñaki, baina azken aste honetan bentaja handia egin du.*

Adibidean ikus daitekeen bezala, *Bentaja egin* moldearen esanahia da pertsona bat gaixorik egonda, hobera gitea, hau da, sendatzeko pausuak ematea.

*Abantaila ugari du euskara ikasteak eta Elenek horrela zuzendu du bere okerra:*

**ELENE:** Eskerrik asko, Ale.  *Ordubeteko ibilaldi honek bentaja egin dit.*

**ALEJANDRO:** Ele, Ele, Elene!

Hizkia, hitza, hizkuntza, elea.

Hizkuntza, hitza, hizkia, alea.

Ele-alea. Eleak aletuz, Ele-alea, aleak eletuz.

Ele-alea





## ERAGIN ETA ERABILI

**ALEJANDRO:** Hau al da eguraldi ona?

**ELENE:** Ez da eguraldiaren errua! Zer egiten duzu zuk horrelako egun batean eta betaurreko beltzak jantzita?

**ALEJANDRO:** Egun eguzkitsua izango omen zen gaurkoa eta hara! Blai eginda nago! Zopak fideoa dirudit!

**ELENE:** Non duzu euritakoa? Non dituzu zira eta katiuskak? Bob Esponja bera ere lehorrago ibiltzen da itsasoan!

**ALEJANDRO:** Nik harrapatzen badut ETBko iragarle hori, ez dakit zer egingo diodan, e? *Hor aritu da aste osoan, erre ke erre, egun eguzkitsua izango zela esanez. Erre ke erre, giro ederra izango genuela esanez.*

**ELENE:** Ze erre eta ze kerre! Ale, Ale, kale!



A2

Lotu esanahi bera duten euskarazko eta gaztelaniazko hitzak:

- |                 |                  |
|-----------------|------------------|
| 1.- Eguraldia   | a.- Soleado/a    |
| 2.- Eguzkitsua  | b.- Empapado/a   |
| 3.- Blai eginda | c.- Buen tiempo  |
| 4.- Iragarlea   | d.- El tiempo    |
| 5.- Giro ederra | e.- Anunciador/a |



Zerbait behin eta berriz errepikatzen digutenean, behin eta berriz zerbait etengabe esaten digutenean, zer esan?

Euskarazko *eragin* eta *erabili* moldeak kontu berbera behin eta berriro errepikatzea esan nahi du. *Esan* eta *esan* moldearen parekoa da. Gaztelaniaz: *dar vueltas a un asunto* edo *insistir* esango genuke. Halaxe aritzen gara gu ere, esan eta esan, eragin eta erabili, horixe baita euskara ikasteko modu bakarra!

Ale jabetu da badela egoera horietan erabiltzeko esamolde bat:

**ALEJANDRO:** Nik harrapatzen badut ETBko iragarle hori, ez dakit zer egingo diodan e? *Hor aritu da aste osoan, eragin eta erabili, egun eguzkitsua izango genuela esanez. Eragin eta erabili, esan eta esan, giro ederra izango genuela esanez.*

**ELENE:** Ale, Ale, bale!


## PUNTA-PUNTAKOA

**ALEJANDRO:** Ixo, ixo, "Hitza jolas" irratsaioa hastera doa eta.

**ELENE:** Pizta jolas? Baina, baina, zer da hori?

**ALEJANDRO:** Zu bai zaudela pitzatuta! Pizta ez, hitza! "Hitza jolas", bertsolaritzari eskainitako irratsaioa Euskadi Irratian.

**ELENE:** Eta noiztik gustatzen zaizu zuri, bada, bertsolaritza?

**ALEJANDRO:** Ixo! Amets Arzallus ari da eta kantari.  *Kristoren bertsolaria da! Super ona!*

**ELENE:** Ze super eta ze super kristo! Ale, Ale, kale!



**A2** Galderei erantzun:

- 1.- Zer entzun nahi du Alek?
- 2.- Zer da "Hitza jolas"?
- 3.- Non entzun daiteke?
- 4.- Nor da Amets Arzallus?
- 5.- Zer pentsatzen du berari buruz Alek?

HORTIK IBILI  
ETA ERABIL!

*Super ona* bezalako esapideei ihes egiteko, punta-puntako azalpena irakurriko dugu ondoren:

*Punta* hitzak gailur, tontor, gain, erpin, adierazi nahi du. Baina, *punta-puntako* moldeak nabarmen, aparteko, itzel edo itzelezko ere esan nahi du.

Gaztelaniaz honela itzul daiteke: Sobresaliente, extraordinario/-a, excepcional Adibidez:

*Puntako bertsolaria:* un/a bersolari sobresaliente

*Punta-puntako idazlea:* un/a escritor/a extraordinario/a

Gogoan izan, hala ere, gaztelaniaz puntero/a, pionero/a ere esan daitekeela zenbait testuingurutan.


Adibidez:

*Puntako ikerketa-lana:* Investigación puntera, pionera

*Punta-puntako barrutia:* Recinto puntero

Edonola ere, ez da hain molde erabilia gaztelaniaz. Ez, behinik behin, euskaraz adina.

*Ale, punta-puntako ikaslea* denez, segituan jabetu da bere okerraz eta horrelaxe zuzendu du.

**ALEJANDRO:** Ixo, ixo, ixo! Amets Arzallus kantari ari da eta.  *Punta-puntako bertsolaria da!*

**ELENE:** Ale, Ale, bale!

**A2** Sail honetako gonbidatu guztiei, euskara ikasten aritu direnean bizi izandako hainbat konturi buruzko galderak egiten dizkiegu, denei berberak. Zuetako asko bezalaxe, euskaldun berriak izanik erantzun digutena interesgarria gertatuko zaizuelakoan.

## Jon Barrocal

Hogeita bederatzi urte ditu. Trapagarangoa da eta Euskal Filologia ikasitakoa, Bilboko Deustuko Unibertsitatean. Bere gurasoak erdaldunak dira, beraz, etxean ez zuen euskararik entzun, baina hiru edo lau urte zituela gurasoek Trapagarango *Itxaropena* ikastolara eraman zuten. Ikastolan eman zituen, beraz, euskara ikasteko lehen pausoak. Ez du euskaltegira joan beharrik izan euskara ikastera, baina bai irakastera, euskaltegiko euskara-irakaslea baita gaur egun. Hamabost-hamasei urte zituela Aramaioko baserri batean bi uda egin zituen euskara hobeto hitz egiteko asmoak bultzatuta. Garai hartan, Santutxuko bertso-eskolan ere eman zuen izena. Hasiera batean, bere euskara hobetzeko, baina gaur egun bere bai-larako txapelduna ere bada, Enkarterriko txapelduna, hain zuzen ere. Bizkaiko bertso-txapelketan bi aldiz hartu du parte eta zortzi urte daramatza Euskal Herriko Bertsozale Elkartearentzat plazetako bertso-saioak grabatzen.

**Oinarrizko ikasketak ikastolan egin arren, zuk euskara hobetu nahi eta Aramaioko baserri batean bi uda egin zenituen. Nolako esperientzia izan zen hura?**

Hasieran, beldurtu egin nintzen. Baserriko gizona etorri zitzaidan eta ez nion ezer ulertu, semeei ere ez... amari hobeto ulertzen nion. Lehenengo egunetan nahiko galduta ibili nintzen, baina gero, apurka-apurka, belarria ohitu eta ondo moldatu nintzen. Handik urtebetera, berriro joan nintzen.

**Lehenbiziko une hura, elkar ulertu ezinik bizi izandakoa, gogoan al duzu?**

Ez zen lehenengo eguneko kontua bakarrik izan. Bigarren urtean ere gertatu zitzaidan, batez ere adineko jendearekin eta gizonekin. Gauza bat galdetu eta ezin ulertu... hori gogorra da. Beste era batera azaltzeko eskatu eta azkenean, elkar ulertu nahi baduzu, lortzen duzu.

**Familiaz gain, koadrilarik edo egin al zenuen han?**

Bai, herriko jaietan, uztailean ziren auzoko jaiak, ostegun askotan afaltzera joaten ginen elkarte batera. Asko mugitu nintzen eta gustura ibili ere bai. Asko ikasi nuen.

**Filologoa zaren aldetik, beste begi batzuekin begiratzan al diozu orain euskarari?**



Karrera egin aurretik ere gustatzen zitzaidan, eta orain ere gustatzen zait, hitzak zatitzea eta ikustea nondik datozen. Gustatzen zait pentsatzea ze lotura duen hitz batek beste batekin.

**Euskaltegira joaten zara, baina ez euskara ikastera, irakastera baizik.**

Irakastera eta ikastera ere bai. Irakaslea naiz Barakaldoko Udal Euskaltegian, baina lankideengandik ikasten dut, baita ikasle batzuegandik ere.

**Zer moduzko taldeak, zer moduzko esperientzia izan duzu?**

Ona, ikasle gehienekin gustura nago. Gehienak esker onekoak dira, hori garrantzitsua da. Lan egiten duzunean, pozgarria da eskertzea edo zoriontzea.

**Nola irakasten diezu?**


Mintzamina lantzen dugu, euskaltegitik kanpo gehienek ez baitute aukerarik hitz egiteko. Batzuetan, zaila gertatzen da ikasleak hizketan jartzea, baina... ahalegintzen naiz. Entzungaiak, idazlanak eta azterketak prestatzen ditugu. Ez dut oso begiko azterketak hain buru-belarri prestatzea, baina asko prestatzen ditugu.

**Nola motibatzen dituzu zure ikasleak euskara ikas dezaten?**

Nik esaten diet ikasi nahi duenak ikasi egiten duela eta saiatzeko, lotsarik ez izateko, hitz egiteko. Orduak sartu behar direla, baina euskara ikasten baduzu, bestela helduko ez zinatekeen jende askorengana heltzen zarela, gauza gehiagotara heltzen zarela. Nire kasuan, adibidez, bertsoak ulertzera eta egitera. ■

Testu hau 2010-11-15eko Ele-alea irratsaioan oinarrituta dago. Xabier Sukiak Jon Barrocal bertsolariari egindako elkarrizketa entzun nahi izatera, jo [www.ikasbil.net](http://www.ikasbil.net) atarira eta bilatu **487451** zenbakia duen sekuentzia.





## JOKIN MITXELENA: "Ilustrazio batek ez du zertan erabat ulergarria eta koherentea izan"



Testua: Iker Barandiaran Zubiate (Arteman Komunikazioa)  
Ilustrazioak: Jokin Mitxelena



**B1** Jokin Mitxelena ilustratzaile donostiarra Euskadi Saria irabazi du Pello Añorga idazlearekin elkarlanean argitaratutako "Ipuin Kontalariaren Lapikoa" liburuan egindako lanagatik. Ehunka dira Mitxelenak haur eta gazte literaturan egindako marrazki eta ilustrazioak. 1995etik, Alemaniatik egiten ditu Euskal Herriko, Espainiako zein Alemaniako argitaletxeentzako lanak. Pello Añorgarekin batera, *Marripuinak* ikuskizuna (Añorgak ipuin bat kontatu bitartean, Mitxelenak irudikatu egiten zuen kontakizuna) ere berak eman zuen ezagutzera.

**Ordulariek betidanik erakarri izan zaituzte. Txikitan horiek marrazten al zenituen?** Haurra nintzela, aitak erlojuak erosi eta saltzen zituen. Nere irudipenean milaka erloju izaten ziren gure etxean, gela guztietan banatuta. Obsesio bat izango da seguruenik, baina ez da larria.

**Leioara Arte Ederrak ikastera joan zinenen, argi al zenuen marraztea izango zenuela ogibide?**

Ez, ez zitzaidan burutik pasa ere egin. Orduan, nik artista izan nahi nuen, mundu guztia bere jiran daramaten horietakoa. Ez nekien nola bukatuko nuen. Gero, erabat kasualitatez egin nuen topo ogibide honekin.

**Nork izan du zu ilustratzaile lanetan aritzeko errurik handiena, Pello Añorga ipuin-kontalariak ala zure umetako laguna den Iñaki Bergaretxe aktoreak?**

Biek daukate errua! Pellorekin bide luzea egina dut, tratu handia daukagu, ekipo bat egiten dugu proiektu bat dugunean. Iñakirekin, berriz, umetan, marrazkigileen "mafia" bat osatzen genuen, inguruetako marrazkigile "ofizialak" ginen. Harekin egindakoak **hezurretan** gelditu zaizkit.

## Hainbat urtetan irakasle ibili zinen Erreterian eta Pasaian. Zer oroitzapen dituzu?

Marrazketa, plastika eta halakoen maisu nintzen. Gela bat aparte eman zidan Ikastetxeak, **bazterrak** asko zikintzen genituelako. Oso gogorapen onak dauzkat, orduko lankide batzuekin harremana ere badut. Baina garai hura pasa zen. Hala ere, hango **zalapartaren hutsunea** sumatzen dut batzuetan!

## Ikasketak hainbat lan eginez finantzatu omen zenuen...

Bai. Bordelera mahatsa jasotzera eta Pasaia portura bakailaoa deskargatzera joaten nintzen. Mutil-talde bat ginen. **Langileburuak atzamarrarekin** aukeratzen zituen behar zituen langileak. Hori goizeko bostetan **jasateko** gauza bazara, esan nahi du munduan ez dagoela lan gogorrik zuretzat.

Ikastetxe baterako marrazkiak ere egin nituen. Zergatik ez naizen ardogile edo bakailao-arrantzale **misterio hutsa** da.

## Txikitatik liluratu zaituzte ipuinek. Nork kontatzen zizkizun?

Oherakoan, animaliei buruzko albiste bat eskatzen nion amari; berri bat, ez ipuin bat! Amonak ere kontatzen zizkidan. Onenak, amonaren koinatuarenak izaten ziren: egia balira bezala kontatzen zituen momentuan asmatu-tako gezur **miresgarriak!**

## Umorea al da adimenaren arlorik zailena?

Nere adimenarentzat, arlorik zailena sukaldaritza erregulatzeko duena da. Sukaldari txarra naiz, euskalduntasunaren **ukituren** bat baldin daukat, nonbait. Nik prestatutakoa jatera datozen horiek, horiek bai behar dutela umorea!

## Zer aurkitu duzu Coblenzan (Alemania)? Asko gus-tatzen al zaizkizu saguzarrak?

Hemen ardoa da oso ona. Saguzarrekin, berriz, bada hor zerbait: ni bizi izan naizen etxeetan, bai Euskal Herrian eta bai hemen, Alemanian, beti sartu izan dira saguzarrak. Nire munduan kohesio-elementuak dira.

## Sari bat jasotzen duzunean, harritu egiten al zara?

Erabat, bai! Eguneroko kritika eta **laudorioak** oso-oso apalak izaten dira ofizio honetan. Eta halako batean, errekonozimendu handia datorrenean... susto pixka bat ere ematen du!

## Zertarako balio du Euskadi Saria jasotzeak?

**Maiz** esaten den bezala, ofizioz aldatzeko garaia oraindik ez dela iritsi pentsatzeko.

## Zenbatuta al dauzkazu haur eta gazteen literatura-rako egin dituzun ilustrazioak?

Ez dakit zenbat diren: marrazkiak kontatuz gero, milaka batzuk izango dira. Kilotan, ni adina bai, gutxienez!

## Zein dira zure kuttunenak, halakorik bereizterik balego?

Sarituak izan diren lanak, testua nirea dutenak, "Saguzarrak!" liburuak, hasiera-hasierako lanak...

## Zer nolako oroitzapenak ekartzen dizkizu "Gerlari Handia" liburuak? Gogorak al dira?

Garai zailak ziren niretzat. Zulotik ateratzea eta gerlaria aurkitzea biak ere asko kosta zitzaizkidan. Propietate terapeutikoak dauzka liburu horrek pertsonaren **arima-rentzat!** **Gizateriak** eskertuko du egunen batean! Gainera, haurrei ikaragarri gustatzen zaie!



**ARIMA.**- Alma. Âme.  
**ARLO.**- Campo, terreno. Domaine.  
**ATZAMAR.**- Dedo de la mano. Doigt de la main.  
**BAZTER.**- Sitio. Lieu.  
**ERRU.**- Culpa. Faute.  
**GERLARI.**- Guerrero/a. Guerrier.  
**GIZATERIA.**- Humanidad. Humanité.  
**HEZUR.**- Hueso. Os.  
**HUTSUNE.**- Hueco, vacío. Creux.  
**JASAN.**- Soportar, aguantar. Supporter.  
**LANGILEBURU.**- Capataz. Contremaître.  
**LARRI.**- Grave. Grave.  
**LAUDORIO.**- Alabanza. Louange.  
**MAIZ.**- Askotan. Muchas veces. Souvent.  
**MIRESGARRI.**- Milagroso/a. Admirable.  
**MISTERIO HUTSA.**- Puro misterio. Pur mystère.  
**SAGUZAR.**- Murciélago. Chauve-souris.  
**UKITU.**- Toque. Touche.  
**ZALAPARTA.**- Jaleo, bullicio. Tapage.





## Literatura galderak egitea bada, zer da ilustrazioak egitea?

Ez dut inoiz erantzuna jakin. Uste dut behin liburua argitaratuta, irakurleak edo ikusleak dakiela ilustrazioak zer **eransten** dion. Nire ustez, **bultzada** batekin zerikusi handiagoa dauka plan batekin baino. Agian, horregatik naiz diseinatzaile txarra eta, **apaltasun** handiz esango dut, karakterra duten figura-**sortzaile** hobea.

## Pello Añorga Oiartzungo putzuetatik ezagutzen duzula esan izan duzu. Zer daukazue komunean hain ondo konektatzeko?

Gu, oso tipo ezberdinak izan arren, nola, zuk diozun bezala, putzuko lagunak garen, badaukagu lotura gure artean. Antzeko mundu sentimental bat, batak besteak dituen mamuak ere ezagutzen ditugu eta, egoerarik okerranean ere, dena barkatzen diogu elkarri.

## Marrazkiek buruari baino gehiago zentzuei hitz egiten al diete?

Halako gogora ekartze bat espero dut marrazkitik; ez informazio berririk, ez testuari **ekarpenik**. Niretzat, ilustrazioak ez du zertan erabat ulergarria eta koherentea izan. Nahikoa du testuari dagokion perfumea uzten badio.

## Jakin badakigu literaturarako ilustrazioez gain, bestelako lan asko egiten dituzula. Zein da eskatu dizuten lanik harrigarriena?

Bat kontatuko dut, xelebre xamarra: orain dela hilabete pare bat edo Maria Laach monasterioan izan ginen liburu bat irakurri eta marrazten –Marripuen antzera han ere–. Pasarte batean, Jaungoikoa akordeoia jotzen marraztu nuen. Ikusle bati hori gustatu eta orijinala bera

erosi egin zidan. Monasterioko fraide batek hori ikusita esan zidan pena zuela, berak ere gustura hartuko zuela marrazki hura monasterioan jartzeko. Orduan, azaldu zen beste ikusleetako bat eta hantxe bertan enkargatu zidan, bere poltsikotik ordainduta, beste Jaungoikoa bat akordeoia jotzen, monasterioari oparitzeko!

## Idazleak aske uzten zaitu ilustratzeko ala mugak jartzen dizkizu?

Onena da idazle eta marrazkilariaren artean “nik aldatu-hik aldatu, nik hobetu-hik hobetu” elkarrizketa dagoenean; eta emaitzarik onenak orduan lortzen dira. Tarteka, izaten da idazle bakarren bat oso ideia garbi eta finkoak dauzkana, ilustratzaileak gauzak honela eta bestela egitea nahi dituen; horrelakoetan, lan **pattal**, plano, **zozoa** ateratzen da edo ez da ezer ateratzen.

## Zer da zure lanaren gainean esan duten gauza politena?

“A ze beldurra! Bai ederki!” esan zuen haur batek “Gerlari Handia”ren gainean. ■



Errepara iezaiozu elkarrizketaren izenburuari:

### Ilustrazio batek ez du zertan erabat ulergarria eta koherentea izan

Ereduari jarraituz, molda itzazu hurrengo esaldiok ZERTAN erabiliz:

1) Ez duzu negar egin beharrik

.....

2) Ez duzu etorri beharrik

.....

3) Ez dute hori horrela adierazi beharrik

.....

4) Ez dut nik bakarrik egin beharrik

.....


Zalantzarik sortu bazaizu, jo 45. orrialdera.



Argazkia: El Diario Vasco

Jokin Mitxelena ilustratzailea

**APALTASUN.**- *Humildad.* Humilité.  
**BULTZADA.**- *Impulso, empujón.* Élan.  
**ERANTSI.**- *Añadir.* Ajouter.  
**EKARPEN.**- *Aportación.* Contribution.  
**KOMUNEAN.**- *En común.* En commun.  
**PATTAL.**- *Escaso, pobre.* Pauvre.  
**PUTZU.**- *Charco.* Flaque.  
**SORTZAILE.**- *Creador/a.* Créateur/trice.  
**ZOZO.**- *Soso/a.* Niais/e.







Gitarra jotzen.

## Mixel Labeguerie kantaria, euskaltzale polifazetikoa



© Mixel Labeguerie mediku, bertso-epaile, kultura-**sustatzaile** eta politikaria (1921-1980) euskal kantagintza modernoaren aitzat jotzen da. Lapurdiko kantariaren lehen kasetea, "Mixel Labeguerie-ren 8 kantu" izenekoak, 1961ekoa izanik, aurten 50. urte beteko dira argitaratu zela. Bi **berezitasun** bazituzten kantuek: abertzaletasuna, batetik, eta gitarra batekin kantatuak zirela, bestetik. Hala zioen Xabier Letek *Jakin* aldizkarian: "Euskal kantaren lehen urratsetan Mixel Labeguerie dago". Letek zioen lapurtarrak kantu herrikoari estilo-aldaketa ekarri ziola, gitarra soil eta ahots apal batez jotzen zituelako. Euskal irriatiak ere biziki hasi ziren kantu hauek **hedatzen**. Eta hurrengo diskokoak ere bai. **Sona** berezia lortu zuen horietako batek, hitzak Piarres Larzabalena zituen "Gazteri berria" izenekoak, askatasun gose zebilen euskal gazteen **ereserki** bihurtzeraino. (kanta YouTube atarian dago entzungai).

**Berezitasun.** - Particularidad. Particularité.  
**Ereserki.** - Himno. Hymne.  
**Hedatu.** - Difundir. Propager.  
**Sona.** - Fama. Prestige.  
**Sustatzaile.** - Impulsor/a. Promoteur/trice.





Mixel Labeguerie, 1921-1980



Xalbador eta Mattin bertsolarien artean. Eskuinean, Jean Haritschelhar euskaltzaina



Bere bost semeekin: Beñat, Eneko, Peio, Txomin eta Xabi

**E**z dok Amairu taldeko Jose Angel Irigaraik ere hauxe dio: “Berak erakutsi zigun tradizioari begira egotea eta irekia egotea bateragarriak zirela, ez zirela kontrajarriak. Gu hemengoak eta unibertsalak izan gintezkeela”. Eta Mixel Itzainak (Elkarlanean, 1999): “Ordura arte iparralde honetan etxea zen kantatzen, ama edo baserritar mundua goستن. Labeguerie mezu-aldatzaile dator, abertzale edo sozial mezua, beharbada Larzabal baten **ildotik**”. Eta kasetearen azalean ikurrina zenez, dendek saldu nahi ez eta lagun baten farmazian saltzen zen. Hego Euskal Herrian indar handia zuten haren kantek frankismo garaian. “Hemen isiltasuna zen eta kantuagatik jendea bere abertzaletasuna erakusten hasi zen” dio Gorostidik, Debako apaiz zenak. Labeguerie bera Franco eta nazien aurkako espioitza-lanetan ere aritu zen. Baina gatozen kantura. Eneko semeak, berau ere abeslaria, honela dio: “Gure aitak zerbait berri ekarri badu, uste dut zortziko erritmoa euskal kantuan sartzea izan dela. Hori hegoaldetik heldu da, txistutik. Bertzaldean koroek erabiltzen dute. Aitak **baliatu** du gitarra batekin emateko gisan”.

Euskaltzalea zen Labeguerie. Euskaltzaleen Biltzarreko lehendakari izan zen, eta *Euskaldun Gazteen Batasuna* elkarte sortu zuen, euskara eta Euskal Herriaren batasuna sustatu nahi zituena. Bera hor *Irrintzi* dantza eta

kantu taldeko partaide zen. Inguruko 50 bat kantu bildu eta **ezagutzera eman** zituen, besteak beste.

Labeguerie hil zen ebakuntza baterako loarazi eta betiko lo geratuta. Hiletara lau mila bat lagun joan omen ziren, 1980an. Xalbador bertsolariak **azken hatsa eman** zuenean berekin zen Labeguerie medikua. Oso bertsozalea zen medikua, herriz herri zebilena bere lanean, eta dantza, bertso, doinu, lexiko eta **esaera zaharrak** bildu zituen. Hainbat bertsolari erabili doinuei buruzko oharrrak liburuetan dira. Gai-jartzaile izan zen, eta txapelketako bertso-epaile ere bai. Txomin Ezpondaren ustez, Labegueriek ospea eman zion bertsolaritziari, bertsolarien mahai berean eserita **agerian jarritz** inportantea zela bertsoa, ez “hitzaren jolas” hutsa.

Haur denboran apaiz euskaltzalez inguratua bizi izan zen Labeguerie. Aita Lafitte aipatu behar da denen gainetik, honek eragin handia izan zuen harengan. Apaizak sortu zuen *Aintzina* aldizkaria, eta Labegueriek dantza eta **inauteriei** buruzko artikulua bertan plazaratuko ditu. 21 urte zituen Labegueriek orduan. Pertsona ezagunak ibili ziren agerkari honen inguruan: Marc Legasse, Aita Donostia, Piarres Xarriton, Madelein Jauregiberri...

Eta hitzari jarraiki, denek onartzen dute Labeguerie **hizlari** ona zela. Mixel Itzain: “Baina oroz gainetik bere **eleaz** zuen jendea **xoratz**en eta biltzen.” Batek baino





Mixel bere txakurrearekin

gehiagok aitortu dio Itzaini: "hura entzun nuen egun hartan euskaltzale edo abertzale bilakatu nintzen". Beraz, elerako **ahalmen** horregatik ere sartuko zen politikan. Eta musikan ez bezala hor baditu, nola esan, etsaiak edo. *Enbata* aldizkariaren sortzaileetako bat izan zen, gero mugimendu politiko izan zena, euskal nazioaren batasuna eta autodeterminazio eskubidea **aldarri** dituen "Itsasuko Gutuna" deiturikoan. Gerora, Enbatatik aldendu egin zen, ez helburuekin **ez zetorre-lako bat**, metodoekin baizik. Labegueriek, besteak beste, baina bereziki laborariak maite zituen, benetako abertzaletzat zituen, enpresak sortzen lagundu zien, hainbestek ihes ez egiteko Parisa eta lan bila. Batzuek hala **egotzi** arren, bera ez zen "separatista" sentitzen, "federalista" baizik. Europako etnien federazioa nahi zuen. Hil zenean, senatari zen, eta Kanboko alkate ■



Mixel Labegueri euskaltzaleari buruzko informazio gehiago Mixel Itzainak 1999an idatzi eta Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak argitaratutako Mixel Labeguerie (1921-1980) izeneko liburuxkan aurkituko duzu.



**C1** Irakurri berri duzun testuaren gaineko galderei erantzun eta beheko koadroan dagokion hizkia idatzi:

- 1.- Nor izan zen Mixel Labeguerie?
  - a) Lapurdiko abeslaririk modernoetako bat.
  - b) Arlo askotan nabarmendu zen euskal kantaria.
  - c) Xabier Leterekin kantu herrikoiak kantatzen zituen gitarra-jolea.
- 2.- Zer zioen lapurtarrari buruz Letek?
  - a) Gizon apala zela.
  - b) Kantagintzan hasiberria zela.
  - c) Euskal kantagintzaren hasierakoa zela.
- 3.- Zein ekarpen egin zituen Labegueriek?
  - a) Gai-aldaketa eta gitarra jotzeko modua.
  - b) Gai-aldaketa eta abesteko modua.
  - c) Gai-aldaketa, musika jo eta abesteko modua eta zortzikoaren erabilera.
4. Zenbat musika-pieza bildu zituen *Irrintzi* taldearekin?
  - a) 50 dantza-kantu.
  - b) 50 inguru.
  - c) Inguruko 50 kantua.
5. Nola ikusten zuen bertsolaritza Labegueriek?
  - a) Jolasa zen soilik.
  - b) Garrantzizko zerbait zen.
  - c) Agerian utzi beharreko ikuskizuna.
6. Zergatik utzi zuen *Enbata*?
  - a) Ez zuelako Euskadiren independentzia nahi.
  - b) Ez zegoelako helburuak lortzeko erarekin ados.
  - c) Ez zuelako *Enbata* mugimendu politiko izatea nahi.

1-

2-

3-

4-

5-

6-

Erantzun-orria: 45. orrialdean.

**AGERIAN JARRI.**- *Mostrar.* Montrer.  
**AHALMEN.**- *Capacidad.* Faculté.  
**ALDARRI.**- *Reivindicación.* Revendication.  
**AZKEN HATSA EMAN.**- *Fallecer.* Mourir.  
**BALIATU.**- *Utilizar.* Employer.  
**EGOTZI.**- *Recriminar.* Reprocher.  
**ELE.**- *Palabra.* Parole.  
**ESAERA ZAHARRAK.**- *Refrán.* Refrain.  
**EZ ZETORRELAKO BAT.**- Ez zegoelako ados.  
*Porque no estaba de acuerdo.*  
*Parce qu'il n'était pas d'accord.*  
**EZAGUTZERA EMAN.**- *Dar a conocer.*  
*Faire connaître.*  
**HIZLARI.**- *Orador/a.* Orateur.  
**ILDO.**- *Estela.* Sens.  
**INAUTERI.**- *Carnaval.* Carnaval.  
**XORATU.**- *Fascinar.* Fasciner.



**B1** Txalaparta argitaletxeak *Orgasmus* ipuin-liburua kaleratu berri du. Hamaika emakume idazleren artean egindako lana da hau: Irati Goikoetxea, Katixa Agirre, Judit Zuloaga, Garazi Arrula Ruiz, Tania Hearst, Petra Schelm, Irati Elorrieta, Irantzu Ezkerro, Garazi Goia, Irati Jimenez eta Iratxe Esnaola dira liburuaren egileak.

Denak ere emakumeak, gazteak eta belaunaldi bertsukoak. *Erasmus* belaunaldia bezala etiketatu izan dituzte, baina beraiek ez omen dute gustuko izen hori eta erantzun gisa, *Orgasmus* izena *Erasmus* baino nahiago dutela esan nahi izan diete irakurleei lan honen bidez.



## Munduko bazter ezberdinetako emakume gazteak idazle

**L**iburua hamar ipuinek osatzen dute, mundu osoan zehar sakabanatuta dauden emakumezko idazle gazteek idatzi dituzte eta kontakizunek bi ezaugarri nagusi dituzte: erotismoa eta umorea.

Mota askotako ipuinak dira gainera, neurritz eta estiloz desberdinak, eta izen ezagunak eta ezezagunak aurkituko ditugu egileen artean. Horietako batzuek, izen eta jatorri faltsuak erabili dituzte beren benetako identitatea ezkutatzuz.

Liburuan parte hartu duten egileen ustetan, euskal literaturan emakumezkoak beste era batera hartu izan dira eta jarrera misoginoak atzeman dituzte. Adibidez, gizonezkoak diren idazleei egiten ez zaizkien galderak egiten omen dizkiete emakumezkoek. Hala, emakume eta idazle izateagatik "gainbegiratuta" sentitu direla gaineratu dute. *Orgasmus* ipuin-liburua jarrera horren kontrako erantzun "ganberroa" dela esan zuten liburuaren aurkezpen-egunean.



Katixa Agirre eta Irati Jimenez, liburuaren aurkezpenean.



Katixa Agirre, Irati Jimenez eta Edorta Jimenez.



Irakur ezazu liburutik hartutako pasarteak:



1

### Lehenengo itsasontzia

Gauero **bezala**, ohe gainean etzan eta telefonoa hartu nuen. Uztailaren 29a zen, ostegun gaua, hamaikak eta lau minutu.

Zenbakia markatu eta lau soinuen **ostean** norbaitek erantzun zuen telefonoa, baina **isilik** geratu zen, ezer esan gabe.

-Zu al zara? -esan nuen zalapartaka, bihotza bere **lekutik** aterako zitzaidala uste nuen ohetik lurrera **saltoa** eman ostean.

Ez nuen erantzunik jaso.

-Ez eskegi telefonoa, mesedez -eskatu nion.

-Barkatu, uste dut okerreko zenbakira deitu duzula.

-Ez, telefono zenbakia zuzena da. Itxi al dute plazako kafe-etxea?

-Bai, duela bost minutu inguru.

-Eta, 27 zenbakidun autobusa iritsi al da?

-Bai, oraintxe bertan alde egin du.

-Norbait igo al da autobusera?

-Ez, bi emakume jaitsi dira, baina ez zegoen inor hemen **zain**; ordu hauetan normalean oso jende gutxi ibiltzen da hemen inguruan. Zergatik galdetzen didazu hori gutzia?

-Berdin da, ez dio axola. Bakarrik al zaude?

-Ni beti nago bakarrik.

-Nahi baduzu nirekin **hitz egin** dezakezu.

-Nor zara?

Urduritasun pixka bat **nabaritu** nion telefonoaren bestaldeko ahotsari.

-Ezezagunekin hitz egiteko ez dago beraien izenik jakin beharrik. Hiri handi honetan ia denok gara arrotzak. Ez **izutu**, nik ez dizut ezer egingo. Telefono **elkarrizketa** batek ez du inoiz minik egiten.

Isilik **jarraitu** zuen **une** batez beste aldeko ahotsak.

-Zergatik zaude bakarrik? -galdetu nion.

*Orgasmus, Txalaparta, 2010-185-186.orr.*

B1



### Sinonimoak eman:

Testuan beltzez adierazi ditugun hitzen sinonimoak eman.

Kontuan izan testuinguru horretarako egokiak behar dutela izan.

- |                   |                         |
|-------------------|-------------------------|
| 1. BEZALA: .....  | 7. HITZ EGIN: .....     |
| 2. OSTEAN: .....  | 8. NABARITU: .....      |
| 3. ISILIK: .....  | 9. IZUTU: .....         |
| 4. LEKUTIK: ..... | 10. ELKARRIZKETA: ..... |
| 5. SALTOA: .....  | 11. JARRAITU: .....     |
| 6. ZAIN: .....    | 12. UNE: .....          |



“Etxahun, kartografoa”

Komikia 2

OSO ONDO HARTU GINTUZTEN GETARIAKO PORTUAN, ERRESKATATUTAKO ARPOILARIAREKIN BATERA.



BAKAILAOA ETA BALE-GIZENA OPARITU ZIGUTEN.



BALEA OSO-OSORIK APROBETXATZEN DUGU: HARAGIA, MINGAINA, HEZURRAK, ORNOAK, OLIOA...

GERTATUTAKOIA NIRE BIDAIAREN EGUNEROKOAN IDATZI NUEN.



ITSASO TXARRA DELA ETA, HAINBAT EGUN KAIAN EMANGO DITUGU.

ZER DA ARRASTO HAU?

BIZI IZAN DITUZUN ABENTURENGATIK IZANGO DA... EDOTA ZURE NABIGAZIO-MAPEN TINTA TXINATARRA, BESTELA.



HARRITZEKOA DA, EZ DA KENTZEN...



ARRASTO HORI... BEGIZKOA IZANGO DA. ITSASOKO PIZTIAK BEGIRATU DIOLA ESATEN DUTE.

SINESKERIAK ETA LELOKERIAK DIRA HORIEK!

AUSARTA ZARA, BAINA KONTUZ IBILI, ETXAHUN.



ITSASOAK ZU BEZALAKO ABENTURAZALE GAZTEAK GUTIZIATU OHI DITU.

1769KO URTARRILAREN 18AN, L'HIRONDELLE DE MER BERRIRO ITSASORATU ZEN, GETARIA ATZEAN UTZITA, KANTABRIAKO KOSTALDERANTZ.





3. afala: Gefariako portuan egun batzuk igaroko dituzte marinelek eta ondoren, Kantabria aldera joko du itsasontziak. Han ikusiko dituzten izakiek harrifu egingo dituzte Etxahun eta bere lagunak.

Marraziak eta gidoia: Amaia Ballesteros

GURE OSABA JAKES ALMIRANTEA NEUKAN GOGOAN, GARTE ZELA AFRIKAR KONTINENTEA ZEHARKATU ZUENA.



EKUATORE GINEARA IRITSI ETA KONGOKO BINGA PIGMEOEKIN TRATUAK EGIN ZITUEN.



MARRAZKI HAUEK KOSTAKO MARRA DIRUDITE ETA BESTE ESKUA ERE HASITA DAGO BERE KASA "TATUJAEA EGITEN"!

ZER ARI ZAIT GERTATZEN?



19 HILABETEREN ONDOREN BUELTATU ZEN BAIONARA, PIPER ETA KANELA ESPEZIA PREZIATUAK EKARRITA. ANTROPOFAGOEI BURUZ ETA AFRIKA ERDIKO ESKUALDE ZINGIRATSUETAKO MOKELE-MBEMBÉ PIZTIARI BURUZ HITZ EGITEN ZUEN.

GURE OSABA GOGOAN NUELA, NIRE ESKUKO ARRASTOA HANDITZEN ARI ZEN.



ZER DEMONTRE GERTATZEN DA HEMEN?







OSO AHOTS GOZOA ZUTEN ETA IRRIBARRE ZORAGARRIA. ARROKETAJAN ESERITA, GURI BEGIRA ZEUDEN, BEREN MELODIA ABESTEN ZUTEN BITARTEAN. ILE-ADATS GORRIKAK, NAKAR-ITXURAKO AZALAK, ZILARREZKO EZKATAK ZANGOEN ORDEZ.





B1

**1.- Getariako portuan**

Esan hurrengo esaldiok **Egia** ala **Gezurra** diren:

	<b>Egia</b>	<b>Gezurra</b>
1.- Uretara eroritako arpoilaria ito egin zen.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
2.- Balea bakailaoa eta olioia egiteko bakarrik erabiltzen zuten Getarian.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
3.- Etxahunek gertakari guztien berri jasotzen zuen.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
4.- Egun batzuk igaro zituzten Getarian.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
5.- Etxahun tintarekin zikindu egin zen.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
6.- Etxahunen eskuko arrastoa itsasontzi bat zen.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
7.- Getariako portua utzi eta Afrikara abiatu ziren.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
8.- Jakes almirantearekin gogoratzen zen Etxahun.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
9.- Mokele-Mbembé piztiak jan zuen Jakes.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
10.- Etxahunen marrazkiak bere kasa sortzen ziren.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
11.- Beste marinelek ez zituzten begi onez ikusten Etxahunen marrazkiak.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
12.- Asturiaseko kostaldean sirenak atzeman zituzten.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

B1

**2.- Hiztegia lantzen**

Komikian irakurri berri dituzun hainbat hitz eta molde ekarri ditugu hona. Lot itzazu behar bezala euskarazko eta gaztelaniazko bertsioak:

**Euskaraz**

1. Gizena •
2. Ornoa •
3. Egunerokoa •
4. Arrastoa •
5. Begizkoa •
6. Piztia •
7. Sineskeria •
8. Gutiziatu •
9. Zingira •
10. Marra •
11. Sorgindu •
12. Indartu •
13. Karela •
14. Labarra •
15. Ile-adatsa •
16. Ezkata •

**Gaztelaniaz**

- a) Diario
- b) Bestia
- c) Encapricharse
- d) Pantano
- e) Línea
- f) Melena
- g) Escama
- h) Mal de ojo
- i) Vértebra
- j) Arreciar
- k) Borda
- l) Embrujar
- m) Superstición
- n) Marca
- o) Grasa
- p) Acantilado

B1

**3.- Izenburu egokia**

Zein da, zure ustez, atal honetarako izenbururik egokiena?

- a.- Etxahun, marinelekin bat
- b.- Sirenen kantu garratza
- c.- Arrastoen misterio ulergaitza

Testua eta argazkiak: Juanjo Dorronsoro



## Bilboko Arte Eder Museoan: Georges Rouault

**B2** “Sakratua eta Profanoa” izenburuarekin Rouault artista-  
ren ehun bat lan erakusten  
dira Bilboko Arte Eder Museoan.

G. Rouault Parisen jaio zen 1871.  
urtean eta 1958an hil. Henry  
Matisse eta Albert Marquet pintore  
fauvisten laguna izan arren, ez zuen  
beraien estiloa jarraitu. Giza izaera-  
ren etorkizuna izan zen bere kezka-  
rik nagusia eta ikuspegi hau azal-  
tzen du Bilboko erakusketak. Gaz-  
tetan beirategi batean lan egin zuen  
eta han sortu zitzaion artearekiko  
zaletasuna. Parisko Arte Ederren  
Eskolan egin zituen ikasketak.  
Gustave Moreau izan zen bere mai-  
sua eta hau hiltzean bere museoa-  
ren zaindari izendatu zuten Rouault.




Georges Rouault: “Veronica”

Parisko “Salon d’Automne” eta  
“Salon des Indépendants” en eraku-  
tsi zituen bere paisaiak, bodegoiak  
eta erlijio gaiak, bere lagun fauviste-  
kin batera. 1910ean Druet galerian  
egindako erakusketa erakargarria  
gertatu zitzaion Alemaniako espre-  
sionistei. Rouaultek bere sentimen-  
duak azaleratzeko ibili zuen teknika  
espresionistek erabiltzen zutenaren  
antzekoa baitzen: kolore beroak,  
materia eta pintzelkada trinkoak eta  
irudien ertzak oso azpimarratuak.  
Orduan zenbait arte adituk espresio-  
nizatza jo zuten bere estiloa, espre-  
sionismo izpirituala. 1917tik aurrera  
sozial eta erlijio gaiak landu zituen  
Rouaultek: Jesusen aurpegia, *Kris-  
toren pasioa*, *Autorretratu* edo  
*Langile-ikaslea*, *Miserere* saila eta  
*Veronica* koadroak, besteak beste.  
Kaleko jende behartsuak, emagal-  
duak eta pertsonaia barregarriak  
margotzea oso gogoko zuen.  
1930etik aurrera Londresen eta New  
Yorken erakutsi zituen bere lanak.  
Rouaultek bere azken urteetan bere  
koadro asko erretzea erabaki zuen.  
1963an bere alargunak Estatu fran-  
tzesari eman zizkion etxean zituen  
koadro guztiak.

“Bakean hil nahi dut, iskanbilak eta  
gizarteko gezurrak alde batera utzita,  
nire artegintza funtsean apala eta  
xumeak ez dit inoiz huts egin.”

Georges Rouault



Georges Rouault: “Jesus”

Jacques Maritain kristau filosofoak  
eragin handia izan zuen Rouaulten  
pentsaeran. *Artea eta Eskolastika*  
izeneko liburua idatzi zuen Georges  
Rouaulten obrari buruz. Cézanneren  
erretratu eta paisaiak erreferentzi  
garrantzitsuak izan ziren Georges  
Rouaultentzat.

Rouaulten obra arte modernoaren  
eremu zabalean sartu arren, berak  
uste zuen bere estiloa ez zela ez  
kubista, ez fauvista, ez surrealista,  
ezta espresionista ere. Georges  
Rouaulten estiloa oso berea izan  
zen. Margolari saiaturia, berak zioen  
bezala, nekazaria uztari bezala arte-  
gintzari lotutakoa. ■

Erakusketa 2011ko otsailaren 13an amaituko da.

## ARGITALPEN BERRIAK

**A2 ARANTXA URRETABIZKAIA**  
**3Mariak**  
**Erein, 2010**


Arantxa Urretabizkaiaren *3Mariak* eleberriko protagonista nagusiak hiru emakume "zahar" dira. Eta "zahar" hitza propio erabili eta aldarrikatu nahi izan du Urretabizkaia bere lan berri honetan.

80 urte inguru dute hiru emakumeok nobelaren hasieran. Zaharrak dira eta hitz hori beraien artean erabiltzen dute, inolako erreparorik gabe. Gainera, ez daude atzera begira, ez daude bizi izandakoari begira. Une bakoitza bizitzen saiatzen dira.

Bada hirurak batzen dituen beste ezaugarri bat ere: izena. Izan ere, hirurek Maria dute izena, nahiz eta, herrian era ezberdinean deitzen zieten: Maritxuri, Mari-gorri eta Marihandi, hain zuzen ere.



Argazkia: Xabier Errazti

**B1** Liburutik aukeratu dugun pasarte honetan irakurri ahal izango dugu Maritxuriren ahotik hiru izenen gaineko azalpena. Hona hemen:

*gintuen, zidaten, zioten, elkarrekin, elkarri*

Txikitan hiru lagun ginen eta hirurok Maria genuen izena. Horregatik deitzen .....(1)..... niri Maritxuri, ile argia nuelako, eta Marigorri Gorri, ilea garren kolorekoa zuelako. Hirugarrena beltzarana zen, ijito baten pareko, baina ez .....(2)..... Maribeltz esaten, Marihandi baizik. Guk ere onartu egin dugu tribuaren agintea eta gure artean horrela deitzen diogu .....(3)....., koloreen eta neurriaren arabera.

Hiru Mariak, beti .....(4)....., beti elkarri josiak. Lehenik gerrak eta gero bizitzak banandu .....(5)..... arte.

*Urretabizkaia, Arantxa, 3Mariak, Erein, 2010, 7.or.*

Lekuz kanpo utzi ditugunak behar bezala kokatzen saia zaitetz.

**A2 KHERAU**  
**Munduan ortozik**  
**Baga-biga, 2010**


2010ean sortu zuten lau bizkaitarrek *Kherau* taldea (Kherau hitzak euskal ijitoen hizkeran "egin" esan nahi du). Aurretik ezagunak ziren bere artean, lagunak ere baziren eta zenbait musika-egitasmotan elkarrekin ibilitakoak.

Taldearen lehenengo diskoa da "Munduan ortozik". Hamaika kantek osatzen dute eta bertsoez gain, badaude taldekideek beraien asmatutakoak ere.

Folk tradizionalen oinarritutako musika egiten du taldeak, baina bere ukitu eta ekarpen berezia emanez. Trikia eta alboka nabarmentzen dira kantuetan, baita Ibon Ordoñezen ahots goxoa ere. Tradizioan oinarri izanik, hausnarketa garaikidea egin du Kherauk, dantzarako proposamen ezin hobea eginez.

**AMAK EZKONDU NINDUEN**

Amak ezkondu ninduen hamabost urte(re)kin. (bis)	Neska, hago isilkan, aberatsa dun hori. (bis)
Senarrak bazituen laurogei berekin	Pazientziz pasa itzan urte bat edo bi:
Ai, oi, ai! neskabila gaztea, agure zaharra(re)kin. (bis)	Hori hilez geroztikan biziko haiz ongi. (bis)
Ama, zertarako dut nik agure zahar hori. (bis)	Deabruak daramala interesatua
Hartu (e)ta leihotikan jaurti behar dut nik	Hau baino nahiago dut adin berekoa.
Ai, oi, ai! neure leihotikan jaurti behar dut nik. (bis)	Ai, oi, ai! hoge bat urteko gazte loratua. (bis)

**B1** Abestiaren hitzak irakurri eta galderei erantzun:

- Abestiaren arabera, nor ezkondu zen eta norekin?
  - Ama laurogei urteko agurearekin ezkondu zen.
  - Alabak agure batekin ezkondu nahi zuen, baina amak ez zion baimenik eman.
  - Amak gizon zahar batekin ezkontzera behartu zuen alaba.
- Zer pentsatzen zuen alabak?
  - Ez zegoen batere konforme.
  - Bere buruaz beste egin nahi zuen.
  - Ama leihotik behera bota nahi zuen.
- Zein izan zen amaren erantzuna?
  - Agureak gutxi iraungo zuela bizirik.
  - Alabak hobe zuela isilik egotea, aberats izateko aukera galduko zuela bestela.
  - Ondo bizitzeko pazientzia behar izaten dela.

*Zalantzarik sortu bazaizu, jo 45. orrialdera.*



## LETRA-ZOPA

Argazki honetan ageri diren 6 janariaren izenak Baztango landa-etxeei buruzko GAURGERO sailetik hartu ditugu (10-11.orr.).  
Ea zopan aurkitzen dituzun!



F	G	E	R	T	S	U	I	R	B
G	B	A	R	Z	A	K	I	T	A
B	I	A	A	H	S	E	O	A	R
T	A	L	O	A	N	A	T	N	A
O	K	Z	T	R	E	Z	A	E	Z
I	T	L	I	A	A	G	U	R	K
K	E	J	O	G	U	R	T	A	I
Z	U	O	I	I	H	B	A	T	A
T	G	J	T	A	E	N	S	E	T
A	S	N	A	R	A	G	A	I	G

## ARGAZKI-KLIK!



Eraikuntza honetan suteen berri emateko dauzkaten alarma-gailuetan gaizki idatzitako euskarazko hitz bat dago. Zuzenduko al duzu zuk?

## PUBLIZITATEAREN ARRASTOTIK

Ondorengo irudia produktu baten iragarkitik hartu dugu. Jakingo al zenuke asmatzen zer den saldu nahi dena?



## EUSKAL ILUSTRATZAILEEN MARRAZKIAK

Ikus dezagun zenbat euskal ilustratzailearen lanak ezagutzen dituzun. Lot itzazu egileak eta dagozkien marrazkiak:



- A. Mikel Valverde
- B. Elena Odriozola
- C. Asisko Urmeneta
- D. Asun Balzola
- E. Iñaki Martiarena "Mattin"
- F. Antton Olariaga



*Frastearen koaderno*



**HADE 417**



# EUSKARA HOBETZEN

Ale honetan, honako moldeak izango ditugu hizpide:

- Kontuz platerarekin!
- Apenas
- Bapo

Irakur itzazu azalpenak, eta ondoren, praktikarako proposatu dizkizugun ariketak osatu. Badakizu, bestalde, ikasbil atarian ([www.ikasbil.net](http://www.ikasbil.net)) ikas-materialen atalean aurki ditzakezula, argibidez eta entzungaiez horniturik.

## 1. atala: HOBETZEKO OHARRAK

### [Kontuz platerarekin!]

Sarritan entzuten ditugu erdarakadak, eta horietako bat duzue honako esaldi hau: "kontuz platerarekin, beroa dagoela!".

Esamolde traketsa, dudarik gabe, eta, bistakoa denez, gaztelaniazko "que" juntagailua dago okerraren iturrian: "cuidado con el plato, que está caliente".

Kausazko esaldiekin gertatzen da hau.

Jakina! Honelako esaldiak kausazkoak dira, bai euskaraz eta bai gaztelaniaz. Kontuan izan behar duguna da "que" horren azpian "ya que" dagoela ezkutuan...; alegia, aurreko adibidean platerarekin zergatik ibili behar den kontuz adierazi nahi da, zein den arrazoia.

Kontua da kausa hori adierazteko modu egokiak behar ditugula. Adibidez, nola zuzendu esaldi oker hori: "kontuz platerarekin, beroa dagoela"?

Bada, "kontuz platerarekin, beroa dago eta!", edo, baita ere, "kontuz platerarekin, beroa baitago!".



Irakurri berri duzun azalpena kontuan izan eta zuzen itzazu hurrengo esaldiok:

- 1.- Erne ibili zure diru-zorroarekin, lapur asko dabilela!
- 2.- Mugitu zaitez, berandu dela!
- 3.- Arreta handia jar ezazu, haurra galdu egingo dela!
- 4.- Irakur ezazu Jokin Mitxelenari egindako elkarrizketa, gustatuko zaizula!
- 5.- Lagun iezadazu bazkaria prestatzen, gonbidatuak laster etorriko direla!
- 6.- Joan zaitez Mikelekin, oso jatorra dela!
- 7.- Ikus ezazu *Izarren argia* filma, oso ona dela!
- 8.- Joan gaitezen Baztango *Kastonea* landa-etxera, oso polita dela!
- 9.- Eros dezagun irina Orendaingo errotan, oso merkea dela!
- 10.- Eros itzazu liburu digitalak, erosoagoak direla!





## 2. atala: ADISKIDE GAIZTOAK

### [Apenas]

Erne ibili behar dugu hitz honekin eta hainbat ohar hartu behar ditugu gogoan:

- Esaldia osatzeko garaian, aditz laguntzaileak -(e)n atzikia hartzen du.
- Gaztelaniaz eta euskaraz ez dira beti sinonimo.
- *Ozta-ozta* esan nahi du.
- Zerbait dagoelako edo gertatu delako zalantza adierazteko hitza da *apenas*, esanahiaren aldetik "ez dirudi"-ren kidea da eta.



Azalpenak kontuan izanik, aukera ezazu kasu bakoitzean zein den zuzena:

- 1.- Inguru honetan aizkorarik eta apenas *daude/dauden*.
- 2.- Apenas atera *den/da* besterik.
- 3.- Apenas entzun *daiteke/daitekeen* hitz hori Donostia aldean.
- 4.- Bi hankarekin joan direnak bueltan batekin etorri, berriz joateko gogo handirik apenas ekarri *dute/duten*.

## 3. atala: ESAERAK ETA ESAPIDEAK

### [Bapo]

Txirritak adina latin jakinagatik, jakin badakigu latineko hitz beretik datozela "bapo" eta "guapo" hitzak. Izan ere, kupel beretik edaten dute bapo egiten dutenek eta "los que se ponen guapos".

Baina gatozen ale honetako ariketara. Zer erantzun eman "nola" galderari? "Nola" galderari "bapo" erantzuten diogu, askotan. "Bapo", edota "majo" ere esaten dugu lagunartean, hainbat egoeratan.

Adibidez:

*"Bapo jan eta edanda ibiliak gara joan den asteburuan!"*

*"Majo lo egin du gure haurrak, oherakoan esnetik bapo egin eta gero!"*

Beraz, "bapo", "majo"... Nork esan du sarritan euskarak ez duela gaztelaniak duen freskura-rik? Bada, askotan geurean garelako gu hankamotzak ohartzeko, egin dezagun oker-zuzenketa hau.



Nola esan gaztelaniazko "Nos hemos puesto guapos de cordero"?

.....

"Jatetxean a tope jarri gara" esan ordez, zer esango zenuke zuk?

.....



# IKUSIZ IKASI

Gure erredakziora iritsitako errezeta bat izango dugu hizpide ale honetan. Lehenbiziko orrialdean, ikasleak berak bidalitako bertsioa aurkeztuko dugu. Hurrengo orrialdean, berriz, guk egindakoa. Edonola ere, zuen idatziak bidaltzera animatzen zaituztegu [argitalpenak@habe.org](mailto:argitalpenak@habe.org) helbidera.

## HIRU TXOKOLATEZKO TARTA

### OSAGAIAK:

60g. Gurin  
Gaileta Maria pakete bat  
150g. Txokolate beltza  
150g. Txokolate esnearekin  
150g. Txokolate zuria  
750 ml. Esnegain  
750 ml. Esne  
3 sobre mami  
150 g. Azukre



### NOLA PRESTATU:

Lehenik eta behin, tartaren basea egingo dugu. Horretarako, gailetak txikituko ditugu ahal dugun heinean. Nahi badugu errobot batekin egin dezakegu, baina ez badugu, errodilo batekin txikitu dezakegu. Bukatzerakoan, gurina bol batean mikrouhinean sartu eta urtu egingo dugu.

Gurina urtuta egon bezain laster, gailetarekin nahasiko dugu masa uniforme bat egin arte. Guztia metalezko tartera batean jarriko dugu, dena estali arte.

Hasiko gara orain txokolateekin. Txokolate guztiak era berdinean egiten dira.

Burruntzali batean txokolate beltza, 250 ml esne, 250 ml esnegain, 50 g azukre eta mami sobre bat botako dugu. Su motelean jarriko dugu eta 7 minutuz mugiaraziko dugu. Ezin diogu txokolateari irakiten utzi.

Dena ondo nahasita dagoenean, gaileta basera botako dugu. Kontu handiz ibili behar dugu txokolatea oso bero dago eta.

Erreserbatuko dugu pixka bat hotz dadin, eta hasiko gara bigarren txokolatearekin. Kasu honetan, txokolate esnearekin.

Esan dudanez, prozedura berdina egin behar dugu, beraz, guztia ondo nahasita dugunean, eta txokolatea prest dagoenean, koilara bat hartuko dugu eta buelta emango diogu txokolatea botatzeko tarterara. Hau egiten dugu beroarekin bi txokolateak ez nahasteko eta tenplatzeko.

Momentua da 3. Txokolatea prestatzeko. Kasu honetan, txokolate zuria. Lehengo bi txokolate bezala egingo dugu, baina kasu honetan, azukrea nahi badugu botako diogu (txokolate zuria goxoegia da eta).

Tarteran botako dugu, lehen esan dudan moduan, koilararekin.

Utzi behar dugu gure tarta hozten. Hoztu eta gero, hozkailuan sartuko dugu, gutxienez egun batez.

Ordua da tarta desmoldatzeko eta nahi duzun modura adornatu. Erabil dezakegu kakao hautsak, birutak, edo bonboiak. Hau zuen gustura utziko dut!

Espero dut zuen gustukoa izatea.

On egin!!!







Hona hemen gure bertsioa, egindako aldaketa nagusiak azpimarratuta (ez denak). Konpara itzazu biak eta atera ondorioak.

### **HIRU TXOKOLATEZKO TARTA**

#### **OSAGAIAK:**

60g. gurin  
Maria gaileta-pakete bat  
150 gr. txokolate beltz  
150 gr. esnedun txokolate  
150 gr. txokolate zuri  
750 ml. esnegain  
750 ml. esne  
3 sobre mami-hauts  
150 gr. azukre

#### **NOLA PRESTATU:**

Lehenik eta behin, tartaren basea egingo dugu. Horretarako, gailetak txikituko ditugu ahal dugun heinean. Nahi badugu errobot batekin egin dezakegu, baina ez badugu, arabol batekin txikitu ditzakegu. Bukatutakoan, gurina bol batean jarri, mikrouhinean sartu eta urtu egingo dugu gurina.

Gurina urtuta egon bezain laster, gailetarekin nahasiko dugu masa uniforme bat egin arte. Guztia metalezko tartera batean jarriko dugu, dena estali arte.

Orain txokolateak prestatzen hasiko gara. Txokolate guztiak era berdinean egiten dira.

Kazola batean (esnea berotzekoa) txokolate beltza, 250 ml. esne, 250 ml. esnegain, 50 gr. azukre eta mami-hauts sobre bat botako dugu. Su motelean jarriko dugu eta 7 minutuz mugiaraziko dugu. Ezin diogu txokolateari irakiten utzi.

Dena ondo nahasita dagoenean, gaileta-basera botako dugu. Kontu handiz ibili behar dugu txokolatea oso bero dago eta.

Erreserbatuko dugu pixka bat hotz dadin, eta bigarren txokolatea egiten hasiko gara. Kasu honetan, esnedun txokolatea.

Esan dudanez, prozedura berari jarraitu behar diogu, beraz, guztia ondo nahasita dugunean, eta txokolatea prest dagoenean, koilara bat erabiliko dugu, kazolatik txokolatea tarterara botatzen laguntzeko. Hau egiten dugu bero dago-ela bigarren txokolate hau, bi txokolateak ez nahasteko, eta epeltzeko.

Momentua da 3. txokolatea prestatzeko. Kasu honetan, txokolate zuria. Lehengo bi txokolateak bezala egingo dugu, baina kasu honetan, azukrea nahi badugu, bota egingo diogu.

Tarteran botako dugu, lehen esan dudan moduan, kazolatik, koilara erabiliz.

Gure tarta hozten utziko dugu. Hoztu eta gero, hozkailuan sartuko dugu, gutxienez, egun batez.

Ordua da tarta desmoldatzeko eta nahi duzun modura adornatzeko. Kakao-hautsa, birutak edo bonboiak erabil ditzakegu. Hau zuen gustura utziko dut!

Espero dut zuen gustukoa izatea.

On egin!!!

## ▶ IDAZTARAUA

### > HIRU ZENBAKIAREN DEKLINABIDEA

Zenbakien artean, *hiru* zenbatzailea salbuespentzat jo behar da euskal deklinabidean eta horregatik honela jotatzea proposatzen da:

- 1) *Hiru* izena denean, *bokalez* bukatzen diren *gainerako* beste edozein *sintagma* bezala deklinatuko da: *hiru*, *hirua*, *hiruak* (abs); *hiruk*, *hiruak*, *hiruek* (erg), e.a.
- 2) Izenordain baten funtzioa duenean (alegia, sintagma osoa berak bakarrik osatzen duenean), honelaxe deklinatuko da:

#### Hiru

##### mugagabea

hiru  
hiruk  
hiruri  
hirurik  
hirutan  
hirutako  
hirutatik  
hirutara  
hiruren  
hirurekin  
hirurentzat  
hirurez

##### plurala

hirurak  
hirurek  
hirurei  
—  
hiruretan  
hiruretako  
hiruretatik  
hiruretara  
hiruren  
hirurekin  
hirurentzat  
hirurez

- 3) Hau *hiru* zenbakiari bakarrik dagokio eta ez *hamahiru*, *hogeita hiru*, *berrogeita hiru* eta *gaienerakoei*, hauen pluraleko deklinabidea *hamahiruak*, *hogeita hiruak*, *berrogeita hiruak*, e.a. baitira.

Zuzen itzazu oker dauden esaldiak:

- 1.- Ipuinaren arabera, hiru ziren txerriak eta hiruek lortu zuten otsoari aurre egitea.
- 2.- Nik ez dakit zenbat senide diren guztira, dakidan gauza bakarra da hiru ahizpa direla bai eta hiruei atzematen zaiela ez direla hemen jaioak.
- 3.- Asko garenez, gutako hirurek autobusa hartu beharko dugu etxera joateko, autoan nahikoa toki ez baitago.
- 4.- Zenbat aldiz joan naizen Parisera? Nik dakidala, hiruretan, baina oso seguru ere ez nago.
- 5.- Azken bi urteotan bost taberna zabaldu dituzte gure auzoan, baina gu, behintzat, momentuz, hiruretan bakarrik izan gara.
- 6.- Bozketa egiteko garaia iritsi zenean, hamahiruk eman zuten proposamenaren aldeko botoa eta hiruk, berriz, boto zuria botatu zuten.
- 7.- Oso memoria txarra daukat eta normalean, ikasturte hasieran, behintzat, ikasleen izenak ezin ikasi ibiltzen naiz. Gehienetan, hiruen izenak bakarrik gogoratzen ditut.
- 8.- Atzoko bilerara bezperan etorritako hirurak etorri ziren, baina beste hamahiruak ez ziren azaldu ere egin.



07



- 1.- baztertu
- 2.- erronka
- 3.- iraultza
- 4.- eginbehar
- 5.- berretsi
- 6.- euskarri
- 7.- hitzarmen
- 8.- erraldoi

09



- 1.- Gezurra
- 2.- Gezurra
- 3.- Gezurra
- 4.- Egia
- 5.- Egia
- 6.- Egia
- 7.- Egia
- 8.- Gezurra

26



- 1.- Ez duzu zertan negar egin/ Ez duzu zertan negar eginik
- 2.- Ez duzu zertan etorri/ Ez duzu zertan etorririk
- 3.- Ez dute hori horrela zertan adierazi
- 4.- Ez dut nik bakarrik zertan egin/ Ez dut nik bakarrik zertan eginik

29



- 1.- b
- 2.- c
- 3.- c
- 4.- b
- 5.- b
- 6.- b

31



- 1. LEGEZ
- 2. ONDOREN
- 3. MUTU
- 4. TOKITIK
- 5. JAUZIA
- 6. ITXAROTEN
- 7. BERBA EGIN
- 8. SUMATU/ANTZEMAN
- 9. BELDURTU/KARATU
- 10. SOLASALDIA/SOLASA
- 11. SEGITU
- 12. MOMENTU

35



- 1.- Gezurra
- 2.- Gezurra
- 3.- Egia
- 4.- Egia
- 5.- Gezurra
- 6.- Gezurra
- 7.- Gezurra
- 8.- Egia
- 9.- Gezurra
- 10.- Egia
- 11.- Egia
- 12.- Egia

- 1.- o
- 2.- i
- 3.- a
- 4.- n
- 5.- h
- 6.- b
- 7.- m
- 8.- c
- 9.- d
- 10.- e
- 11.- l
- 12.- j
- 13.- k
- 14.- p
- 15.- f
- 16.- g

37



- 1.- zidaten
- 2.- zioten
- 3.- elkarri
- 4.- elkarrekin
- 5.- gintuen

- 1.- c
- 2.- c
- 3.- a



38



## LETRA-ZOPA

F	G	E	R	T	S	U	I	R	B
G	B	A	R	Z	A	K	I	T	A
B	I	A	A	H	S	E	O	A	R
T	A	L	O	A	N	A	T	N	A
O	K	Z	T	R	E	Z	A	E	Z
I	T	L	I	A	A	G	U	R	K
K	E	J	O	G	U	R	T	A	I
Z	U	O	I	I	H	B	A	T	A
T	G	J	T	A	E	N	S	E	T
A	S	N	A	R	A	G	A	I	G

## ARGAZKI-KLIK

AHUTSI ordez, HAUTSI beharko luke izan.

PUBLIZITATEAREN  
ARRASTOTIK

hp etxeko inprimagailuen iragarkia da eta oso kalitate handiko inprimatze-lana egiten dutela aldarrikatzen du.

EUSKAL  
ILUSTRATZAILEEN  
MARRAZKIAK

5 A; 3 B; 4 C; 6 D, 2 E; 1 F



[40-41]

## 1. atala: HOBETZEKO OHARRAK

- 1.- lapur asko dabil eta!/baitabil!
- 2.- berandu da eta!/berandu baita!
- 3.- haurra galdu egingo da eta!/galdu egingo baita!
- 4.- gustatuko zaizu eta!/gustatuko baitzaizu!
- 5.- gonbidatuak laster etorriko dira eta!/etorriko baitira!
- 6.- oso jatorra da eta!/baita!
- 7.- oso ona da eta!/baita!
- 8.- oso polita da eta!/baita!
- 9.- oso merkea da eta!/baita!
- 10.- erosoagoak dira eta!/baitira!

## 2. atala: ADISKIDE GAIZTOAK

- 1.- *dauden*
- 2.- *den*
- 3.- *daitekeen*
- 4.- *duten*

## 3. atala: ESAERAK ETA ESAPIDEAK

"Arkumez bapo geratu gara!", edo "arkumea janda bapo!", edo, baita ere, "lepo!", "arkumez lepo eginda!".  
"A tope" jarri garela esatea baino askoz ere egokiagoa da "jatetxetik bapo janda irten ginen" esatea.

[44]

- 1.- Ipuinaren arabera, hiru ziren txerri txoak eta hirurek lortu zuten otsoari aurre egitea.
- 2.- Nik ez dakit zenbat senide diren guztira, dakidan gauza bakarra da hiru ahizpa direla bai eta hirurei atzematen zaiela ez direla hemen jaiok.
- 3.- Askok garenez, gutako hiruk autobusa hartu beharko dugu etxera joateko, autoan nahikoa toki ez baitago.
- 4.- Zenbat aldiz joan naizen Parisera? Nik dakidala, hirutan, baina oso seguru ere ez nago.
- 5.- Azken bi urteotan bost taberna zabaldu dituzte gure auzoan, baina gu, behintzat, momentuz, hirutan bakarrik izan gara.
- 6.- Bozketa egiteko garaia iritsi zenean, hamahiruk eman zuten proposamenaren aldeko botoa eta hiruk, berriz, boto zuria botatu zuten. (Ondo dago)
- 7.- Oso memoria txarra daukat eta normalean, ikasturte hasieran, behintzat, ikasleen izenak ezin ikasi ibiltzen naiz. Gehienetan, hiruren izenak bakarrik gogoratzen ditut.
- 8.- Atzoko bilerara bezperan etorritako hirurak etorri ziren, baina beste hamahiruk ez ziren azaldu ere egin. (Ondo dago)



**EUSKARAREN GEOGRAFIAK,  
GIZA GEOGRAFIAK,  
EZ DU MUGARIK.  
ERABILERA EMATEN DIO  
BIZIA ETA INDARRA.**





## IKASBIL ATARIARI BURUZKO DATUAK

	ALE KOPURUA	PILATUTAKO DESKARGAK		
		2009	2010	HAZKUNTZA
Material didaktikoa	11150	5831705	7424685	%127
Ariketak	5377	4031104	5097683	%126
Sekuentzia didaktikoak	1679	1345309	1746372	%129
Guztira		11208118	14268740	%127
		URTEKO DESKARGAK		
		3027009	3060622	%101

**HABE**  
**ikasbil**

[www.habe.euskadi.net/ikasbil](http://www.habe.euskadi.net/ikasbil)

Euskara ikasteko  
informazioa eta  
baliabideak

Zenbakia	Izena	Deskargak
<b>IRAKURGAI JAITSIENAK</b>		
316593	Ohitura aldaketak	4823
405093	Arantza Ezkurdia: "Okerrena ez da gehiegi jatea, gaizki eta azkar jatea baizik"	4492
423103	Bikotekidea udan	4126
<b>BIDEO JAITSIENAK</b>		
307247	Kutsidazu bidea, Ixabel	6682
341864	Hegazkin-txartelak	4254
327869	Uxue Astiz futbolaria	4164
<b>ENTZUNGAI JAITSIENAK</b>		
318329	10 metro karratuko etxea	3586
309893	Zenbat puntu dituzu gidabaimenean?	3560
373458	Gripe anderea, egunon!	3411
<b>ARIKETA JAITSIENAK</b>		
310146	Atariko proba 1	8720
289978	Buruko mina, kontsultarako arrazoi nagusietakoa	7410
360458	Etorri!	6750
<b>SEKUENTZIA DIDAKTIKO JAITSIENAK</b>		
361863	Atariko proba 2	7627
346306	Herrian ala hirian?	7369
327778	Maite zaitut	7140
<b>KERMAN. BIDEO DESKARGAK</b>		107234
<b>KERMAN. SEKUENTZIAK</b>		96254